

↻ Hizpide ↻



Zenbaki honetako «Hizpide» atalean, 2002ko azaroaren 14tik 16ra, eta Galtzagorri elkarteak antolaturik, Donostiako Miramar Jauregian burutu zen «Haur Poesia Biltzarra» topaketetako zenbait hitzalditako testuak eskaintzen ditugu

Hotsen gorazarre

ANJEL LERTXUNDI

Donostian, 2002-11-14

Haur poesiari buruzko jardunaldiak

Arratsaldeon, jaun-andreok:

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkizuet ekitaldi honetara konbidatu nauzuelako. Poesia zalea banaiz ere, ez naiz poeta, eta haur literaturaren nondik norakoak segitu baditut ere, ez naiz aditua haur poesian. Zera nahi nuke pentsatu: poesiak haurren heziketan duen garrantzia behin eta berriro aldarrikatu dudalako nagoela hemen. Edonola ere den, horrelakoetan ohi diren baino merito gutxiago irabazia naiz eta, horrexegatik, motibo gehiago ditut zuen gonbita eta gaur hemen egoteko ohorea eskertzeko.

1. Memoriaren kontzientzia

«Memoriaren kontzientzia landu behar dela uste dut», zioen Carmen Baroja Nessik bere liburu autobiografikoan.

Haur poesiak hitz egiteko derrigorrezkoa egiten zait lehendabizi nire haurtzaroko hainbat oroitzapenez hitz egitea, han dago-eta, inon egotekotan, nik egin ditudan lanen oinarria.

Ezagutua naiz ur eskasiari aurre egiteko errogatibak antolatzen zituzten garaiak. Egunak argitu baino lehen jaikitzen ginen, eta leihoan eskuak gurutze

↪ Hizpide ↪

jarririk, gizon-emakume ilarak ikusten genituen, letaniak kantatzen, nire jaiotetxetik hurbil dagoen San Martin ermitatik elizaraino jaisten.

Sancta Caecilia, ora pro nobis, Sancta Catharina, ora pro nobis...

Errogatibak geurera ekarri eta, haien prozedura imitatuz, gure auzoko hainbat emakume zirikatzen genituen guk:

—Sancta Perpetua, Zekorranekua; Sancta Manuela, Benta Txikikua; Sancta Iñaxi, Katxiñanekua...

Entzuten genuena imitatzeko gure gaitasuna eta xalotasuna ia mugarik gabeak izango ziren seguru asko, baina nork esan behar zigun guri sorkuntzaren aldaera nagusietako bat, imitazioarena, jartzen genuela praktikan? Horretan ari ginen, ordea, auzoko baten izena eta haren base-riarena letania baten soka motzean uztartzekoan: eredu baten itxura bereko beste formula bat sortzen.


Gure aitarena izan zen gu bizi ginen auzoko lehendabiziko autoa. Senideok ezin genuen ezkutatatu


Fiat beltz distiratsuak sortarazten zigun harrokeriazko poza. Auzoko neska batek «zortzi-

hamar urterekin bere ama eta bere amonaren atso traza bera zuen» hala bota zigun destaina-zirkina eginez: «Aberatsa, infernuko legatza; pobria, zeruko loria». Ezagutzen nuen bigarren partearen logika: «pobria, zeruko loria». Lehendabiziko parteko *legatzak*, ordea, urtetan deskontzertatu ninduen: aberatsak ote dira infernuko mahaiak hornitzen dituztenak? Orain badakit neska hark *laratza* esan behar zuela *legatzaren* tokian, baina, ordurako, gure etxeetan ez zen *laratzarik*. *Laratza* objektua desagertu zenean, *laratza* hitzak ere bere errainua galdu zuen, eta, bide batez, sorginak-eta ere gure sukaldetan laratzean behera sartzeko maukarik gabe gelditu ziren. Sentitzen zuena espresatzeko premia, bere ezagutza lexikoetara egokitu zuen auzoko neskek etxean mila aldiz entzuna izango zuen esaera zaharra. Egia da *laratza* eta *legatzak* ez dutela hoskidetasuna beste antzik; baina egia da, halaber, neskaren hutsak neure fantasia martxan jarri zuela eta hizkuntzaren egokitzapen-mekanismoari buruzko adibide ezin hobea dela.

Antzeko zerbait egiten zuen Orioko moilatik hurbil janari-denda bat zuen Eskolastikak ere. *Marcelino pan y vino* pelikulak sekulako arrakasta izan zuen garaiei buruz ari naiz. Jakina denez, filmeko musika Sorozabal donostiarrarena da, eta musikariak euskal tradizioetik hartu zuen filmeko *leitmotiv* musikala. Itzul nadin, ordea, Eskolastikaren dendara: bezero batek ezer eskatu orduko, demagun *Pedramol*, garai hartako sukalde-gainak garbitzeko erabiltzen zen hondar-klasea, Eskolastika kantuan hasten zen pelikulako musikarekin: «*Pedramolek sukal-gainak garbitzeitu primeran*». Bezeroak azukrea eskatzen bazion, Eskolastikak: «*Zure hezurak indartzeko azukrea hartzazu*». Behin *Pedro Mayo* txokolatea eskatu zion nire arre-bak; eta Eskolastikak: «*Pedro Mayo, Pedro Mayo, Pedro May!*».

Eskolastikak bukaerako *Pedro Mayyy!* hori egin bazuen, euskal metrikaren neurririk ezagunena eta garbiena baliatzen ari zelako da, Etxepare za-





harrak ere gehien erabili zuen huraxe hain zuzen:
4/4 4/4 4/4 4/3

Mosen Bernat, pentsa ezak, kartzel ori gaitz bada...

Artizarrak bertzetarik abantaila darama...

Orai dute phorogatu enganatu zirela...

Pedramolek sukalgainak garbitzeitu primeran!

Santiyo egun batez auzo bateko festa batera joan ginen familia osoa. Nik sei bat urte izango nituen. Trikitalariak *Santiyo, soineko more asko, Santiyo, zapata moriak...* kantatzen zuen behin eta berriro. Askotan galdetu dut koplak horretaz, baina ez dut inolako argibiderik atera. Baina musikak badu behin buruan sartuz gero handik ez irteteko egoskorkeria hori, eta niri bizitza osoan iraun dit trikiti-kanta harenganako obsesioak, hainbestearainoko indarrez gainera, non *Hama-seigarrenean aidanez* izeneko nire eleberrian sartu bainuen.

Bazen gure artean modan jarri zen irri-pieza bat eta erdi sekretuan kantatzen genuena:

Errekoño, puñeta,
Karajo ta koño,
Loitan sartuko al aiz,
Sartuko al aiz loitan
ipur-zuloraino!

Gurasoek errieta egiten ziguten hori entzundakoan, eta hortik erdi isilpean kantatzearena. Halatan, hitz batzuk lohiak edo sakratuak edo it-susiak direla ikasi nuen, testu baten egokitasunaren neurria hitzak baino haratagokoa izan daitekeela, eta ez estetiko edo literario hutsa. Baina *Bautista Basterretxe*ren doinuak kantatzen genuen horrek bazuen gehiago: Auspoa saileko 60. alean esaten zaigunez, irri-kopla hori Longa artzainak kantatu omen zion Benta bertsolariari. Aita Zabalak esaten digunez, Itxaiz baserriko Frantziko Peña izan omen zen irri-kopla hori kantatu ziona. Hiruak ezagutu nituen nik txikitari –Longa, Benta, Itxaiz– eta familia-arte berri-emaike bat baino gehiagoren izenak ere ikusi ditut, bakarren batenak oso maiz, Azkueren, aita Donostiaren edo Antonio Zabalaren liburu etako oin-oharretan. Galtzen ari zen mundu baten erdi-erdian nengoen.

Oroitzapen oso xumeak dira, ez dizuet arnas poetiko izugarriko piezarik eskaini, baina adibide horien oinarrian badaude kongresu honetan aztergai izango diren kontu askoren zantzo oso garbiak: transmisioa eta memoriaren papera; komunikazioa; imitazioa eta egokipena; liluraren mekanismoak; testua eta testuingurua.

2. Lilura eta mekanismoak

Poema bat hotsen ospakizuna da beti. Baina era askotako ospakizunak daudenez –jolasa, elegia, dantza...–, hots guztiek ez dute zernahitarako eta berdin balio: badira hots zaharrak, mo-zorrotoak, kantariak, serioak, ainguraren antzekoak, sorginduak, airearen pisua dutenak, hareaz egindako sokak txirikordatzeko dutenak. Badira poetikoak iruditzen zaizkigun hotsak eta poetikotasunik gabeak. Lehen aipatu ditudan nire haurtzaroko oroitzapen horietan ez dago arnas poetiko handirik. Hona ekarri baditut, ez da beren edertasunagatik izan, beren baitan duten mekanismoagatik baino. Poesiaz hitz egiterakoan liluraren me-

↪ Hizpide ↪



kanismoak eta lilura bera desberdintzen badira, ondo dago haur poesiako mekanismoak aztertzea ere. Zeintzuk diren nagusiak, nola funtzionatzen duten, zer nolako etekinak ateratzen zaizkien. Estilizazioa eta elipsia, aliterazioa, eufonia, erritmoa...

Baliabideak direla esaten dugu, zerbait lortzeko bitartekoak alegia, eta metodologiak eskatzen digu baliabideen eta etekinen arteko bereizketa egitea. Biak, ordea, fenomeno beraren aurkia eta ifrentzua baino zerbait gehiago dira.

Bada adin txikiko haur bat liluratzeko metodo ezin hobea –berdin dio haurrak artean hizketan ikasi ez badu ere–. Hartzen diozu eskutxo bat eta haren hatz-puntak estutzen hasten zara banan-banan, kantatzen diozularik:

Honek eta honek eta honek
bart ezteiak zituzten.
Honek honi zer esan?
Gonbidatzeko hau eta hau!
Gonbidatzaile hau eta hau,
hona non diren hogeita lau.

Aditz laguntzaile mordoa saihestuz, estilizazio handia lortu da. Animismoa baliatuz, hatzak pertsonifikatu dira eta, *honek-honi* aliterazioarekin

batera, ugaritasunaren inpresioa eragin. Etekina, erritmo handiz emandako narrazio bat izan da.

Errepara diezaiogun orain Rabindranath Tagore-ren *Loreen eskola* hura gogorazten duen piezatxo bati:

Udabarriko lora ederra
Non izan zara neguan?
Abazuzien beldurragatik
Sarturik zelai barruan.

Begiratu batera besterik ematen badu ere, *Honek eta honek eta honek* aurreko piezaren baliabide ia berak ditu: estilizazioa, eta erre eta zeta hotsekin lorturiko aliterazioa; animismoa ere ezin garbiago ageri du. Etekina, ordea, guztiz lirikoa da.

Bietan hitzaren bidezko adierazpen artistiko bat lortu da, bietan hitzen esanahia, soinua eta disposizioa (erritmoa) baliatu ditugu. Zertarako, ordea? Bitarikoa den efektu banaezin bat lortzeko: estetiko (atsegintasunari dagokiona) eta emozionala (sentimenduen mundukoa).

Teorian erraza gertatzen da baliabideak eta etekina, estetika eta emozioa bereiztea, baina praktikan lotuta daude, lotuta behar dute: zurin-goa eta gorringoa *arrantza* deitzen dugun horretako egitate banaezinak dira.

3. Metafora beren inguruan

Poetikak poesia eta bere lengoaia aztertzea du helburu, eta horretarako baliabideak eta etekina (nolakoa eta emaitza) bereizten ditu. Baina poetikak, zehaztapenik handienarekin ari denean ere, ezin du bere zeregina bete, ezinezkoa zaio poesiaren misterioa argitzea. Jardun hurbiltzailea da poetika, gertakari poetikoan itzulinguruka dabilen diziplina. Itzulinguruka diot: onenean, poetikak zehatz dezake nola eta zein elementurkin eraikia dagoen bertso bat. Nekez, ordea, zein norabide hartzen dituen, nola jasotzen dugun. Borgesek galdetzen zuen: «Zergatik mundu guztiko eta garai orotako poetek jo dute metafora



beren sorta berera, nahi adina aldaeren aukera genuenean nahi adina metafora berri sortzeko?» Metafora berak dira beti, Borgesen ondo dio, baina metafora horietan metatu diren esperientziak orotarikoak dira, noiznahikoak eta nonahikoak. Poetikak ez daki zehazten zer nolako eragina duen irudi batek gaur eta atzo, nigan eta irudi hori entzun edo irakurri berri duenarengan. Borgesek berak dio: «Munduko gauza guztiek aipu batera garamatzate». Hitz bakoitza matriuska baten itxurakoa da eta gainerako hitz guzti-guztiak gordetzen ditu bere baitan.

Orok hastapena du eta hastapen horrek oinarriren bat behar du. Rubén Daríok zioen Homerok nahitaezkoa zuela bere aurreko Homeroren bat, eta Homeroren aurreko Homerok beste bat, eta ez gara oraindik iritsi animaliek eta landareek hitz egiten omen zekiten garai aspaldikoetara. Zein da euskaldunon Homeroren aurreko Homero, ez bada ahozko tradizio literarioa?

Denboraren poderioan finkatu den kultur ondareaz ari naiz, jakina, baina ez horretaz bakarrik: tradizioak jokabide-eredu estetikoak eskaintzen dizkigu, eta, orenen gainetik, hizkuntzaren senari etekinik estetikoak atera dizkion eredu bat da tradizioa. Etxeparek altxor horri begiratzen dio bere obra osatzerakoan; eta Oihenart ere, klasikoen artean izan dugun poetarik kultuena, gure arte poetiko tradizionalan oinarritzen da eta frogatzen digu tradizioak ematen duela bai herri-bertsogintzarako eta baita poesia jasorako ere.


Kontu jakina da tradizioaren ispiluan ikusten dugun mundu hura ez dela itzuliko, transmisio-moduak ere beste batzuk dira gaur. Ez naiz, bada, iragan-minez ari, etorkizun-gogoz baino. Gure identitatea gorde nahi dugu, hori da gure etorkizuna, baina mundu tradizionalak utzi zigun ondare literarioak gure identitate kulturalaren zantzuak daramatza bere baitan. Bertan daude jasorik, modurik bizienean egon ere, gure hizkuntzaren jokatzeko eta jolasteko modu aberatsenak (elip-

siak, ironia, erritmoa, estilazioa, aliterazioa, irudiak, konparazioak...) Gure hizkuntzaren gaurko egoeran transmisioaren arazoa dugu, transmisio kaskar batek nekez ekar dezake ondorio onik. Baina gauza bat dago garbi: altxor tradizionala transmititurik –haurrak bere mnemoteknia ikaragarriari esker, ez du hori jasotzeko inolako arazorik–, hori jasotzeko, gure hizkuntzaren sena transmititzen dugu, horretan ez dugu oker jokatzeko arriskurik.

Horretarako, ordea, garbi eduki beharra dago Sánchez Romeralek behin eta berriro esaten duena: material tradizionala ez da *esan den* edo *esazen* zerbait; gaur ere *esan egiten den*, eta esanak berriro egiten duen zerbait dinamikoa da. Tradizioa bizia eta dinamikoa da, eta tradizioari esker hitz egiten dugu, hizkuntza baitugu tradizioak utzi digun ondarerik bikainena. Oraindik esaten ari delako da bizia eta dinamikoa, eta ez fosil bat.

4. Arazoak

Errepublika garaiko ikastoletan, eta baita frankismo garaiko lehendabizikoetan ere, sekulako garrantzia ematen zitzaion altxor tradizionalari. Orduko andereñoek ez zuten testurik, baina koaderno handi bana izaten zuten, dena kantuz, jolasez eta poemez bete. Kantu eta poema gehienak berdinak baldin bazituzten ere, andereño





bakoitzak, bere sentiberatasunaren arabera, tokian tokiko poematxo eta jolasak ere biltzen zituen bere koadernoan. Nik ez nuen Elbira Zipritia ezagutu, baina harekin ikasitako batek baino hitz egin dit hark haur kantuari eta poesiari eskaintzen zion arretaz eta denboraz.

Askotan, ordea, ez dakigu zer egin tradizioak eskura jarri digun materialarekin. Batzuetan, aski da erabilera urriko hitzen bat, atzera egiteko. Demagun goraxeago aipatu dudan *Udaberriko lore polita* poeman ageri den *abazuzia* hitza. Beste batzuetan, euskalkia da arazoa. Edo gaizki ulertutako euskara batuarenganako errespetua. Edo zaharkitu itxura. Edo gaur galdua dugun zerbaiti buruzko erreferentziaren bat. Aipatu poema horretan aski genuke, *abazuzia* gorde nahi ez badugu, *elur zurien* jartzea. A-ren aliterazioa galtzen da, egia da, baina *zetarena* gordetzen.

Beti izan da horrela. Edozein kantu tradizionalek aldaera desberdinez osatua dago eta oso aditua izan behar da antzemateko zein den jatorrizkoa. Zabaltzen dut brastakoan Aita Donostiaren obren zortzigarren tomoa eta Lekarozen jasotako «Oraindik gaztetzua naiz» testu erlijiosoarekin egiten dut topo. Segidan, kanta beraren beste bi aldaera datoz: «Oraindik gazte naiz» eta «Orai ni gaztia naiz». Aldaketa asko daude bate-tik bestera, jendeak bere komenientziako egokipenak egin ditu, baina aldaketa guztiak anekdotikoak dira: egituraz gainera, poemaren giltza berdin-berdin gordetzen da hiru piezetan.

Hona Azkuek jaso zuen egitura bat:

—Adi zan, hi, Katxalen.
—Zer behar dun, Matxalen?
—Gauza bat ari naun pentsatzen:
Ni hiltzen naizenean,
andetan naramatenean,
San Pedro txikia kantatzen,
barreari nola eutsiko diodan
ari naun pentsatzen.

Aurkezpen formula ezin hobea du, eta segidako irri-egitura aldagarria da. Horrela, proposamen literario ezin hobea dugu fikzio berriak, irri-garriak ala ez, sortzeko:

—Adi zan, hi, Katxalen.
—Zer behar dun, Matxalen?
—Gauza bat ari naun pentsatzen:
hik jartzen badun oiloa,
hik olio badidan ematen,
hire kontura bazkaldu ondoren
barreari nola eutsiko diodan
ari naun pentsatzen.

Material hauek geurera ekartzekoan izan ditzakegun arazoak arazo, ni nago arazorik handiena gu geu garela: sentiberatasun literariorik gabe, nekez balia daiteke ez tradizioa ez beste edozein material.

5. Oihartzunak

Tradizioa ez da oinordetzan ematen zaigun zerbait, inoiz ezin dugu esan: «jaso genuen, eta jabe gara». Ez. Lan eta neke askoren ondoren irabazten hasten garenean eta inoiz osorik lortzen ez dugun altxor bat da tradizioa.

Testuak beti bat izan arren, izan eta izango diren belaunaldien begiek desberdin jaso, esan edo irakurtzen dituzte. Xaribariak, asto-lasterrak, karrosak... Guztiak ere oso pieza iraingarriak ziren beren garaian, norbait gogor zirikatze sortuak baitziren. Pieza horietatik testuak gelditu zaizkigu, ez gara gogoratzen zein motiborekin sortuak izan ziren:

—Errak, to.
—Zer duk, to.

—Badakika berri?
 —Zer berri?
 —Felixenean oiloa nagusitu zaiola oilarrari.
 —Zer hasi da? Oilarra erruten?
 —Ez oraino, baina oiloa kukurruku egiten.
 —Josepe al da oilotu?
 —Bai, eta Margarita oilartu.
 —Berri horren ohoretan,
 jo adarra errepikan,
 klin-klan!

Senar-emazteen arteko liskarrak zirikatzen zizutzen xaribariek eta antzeko piezek, baina gaur oihartzun estrainioak eta lilura zaharkitu halako bat duen dramatizazio bat da geratu zaiguna. Baina ez hori bakarrik: pieza horretan jokabide-eredu estetiko bat dago bere metaforekin –oilotu, oilartu, jo adarra...–, erritmoarekin, ironiarekin, onomatopeiarekin, egitura gramatikalen malgutasunarekin...

Hitzek, esapideek, esaerek, testu egituratuak gutariko bakoitzak bizi izandakoa, oroimena, ahots joanen oihartzuna gordetzen dituzte beren altzoan: gure unibertso pertsonala izendatzen, deskribatzen eta kontatzen dute batetik eta, bestetik, unibertso kolektiboa, hizkuntza jakin bateko hiztun guztiek metatu duten jakituria estetikoa eta espresatzeko mina osatzen dute.

Demagun *Errak, bat* estruktura ezaguna. Dirudienez, tradizio zahar pagano baten egokipen kristaua da guk ezagutzen dugun itzuliko egitura hori. *Errak, bat* horren bertsio latinezkoa, zelta eta sefardia ezagutzen ditut. Azkuek beste hiruzpatalu bertsio ere aipatzen ditu. Izango dira gehiago. Kristautasunarekin, motibo paganoak egokitu genituen. Gaur horko letania zaharkitua gelditu da baita kristau batentzat ere. Baina egitura eta prozedura artistikoa hor daude. Galtzen utzi behar dugu?

Hots bakoitza esperientzia askoren enkontrua da, eta ez du berdin eragiten edo oihartzun bera sortzen ingurune guztietan.

Asko interesatzen zaidan puntu batera heldu naiz: aurretik oihartzunik jaso ez duen jardun literario batek nekez transmiti dezake oihartzunik. Haur poesiak, eta ez naiz euskal haur poeziaz bakarrik ari, non aurki ditzake bere oihartzun berezkoenak, ez bada tradiziozko/ahozko jardunean?



6. Gure poetikaren nondik norakoak

Nora jo nahi genukeen jakiteko, beharrezkoa da nondik gatozen jakitea.

Honela zioen Wilhelm Humboldttek 1801. urtean Euskal Herrira egindako bisita ondoren:

«*Ningún pueblo lleva tan lejos quizás la pasión por los cuentos [ahozko tradizioaz ari zela esan genezake] como los vascongados. Corren también una gran cantidad de ellos entre el pueblo, y hasta hay diferentes clases [...]. Con gran alborozo hubiera recogido noticias más exactas sobre estos cuentos populares. Solo que, como únicamente existen en la boca del pueblo, sería necesario un completo desembarazo en la comprensión del vascuence y una per-*



⇨ Hizpide ⇨

manencia todavía más larga para coleccionarlos de este manantial.»

Eta Koldo Mitxelenak Humboldtten testu horri buruz:

«Humboldt-ek dioenez, eta 1800 inguruko kontuak dira, baziren Euskal Herrian ezin konta ahala ipuin, zikloetan bereziak eta partituak. Bat bederak ba omen zuen, gainera, bere forma berezia. Ez omen zitezkeen behintzat itzuli, zuten grazia galdu gabe. Zein ziren direlako ziklook eta nola kontatzen zituzten? Ez dakigu ongi, baina, nolnani ere den, lor dezakegun jakitearen mugariak hobeki landatuak geldituko lirateke saioen bat edo beste eskaintzen bagenie».

Mitxelenak eta Humboldt-ek ipuinei buruz esaten zuten horixe esan genezake herri poesiaz ere. Gure altxor tradizionalan nonahi dauzkagu mundu aberats baten zantzuak: albadak, deitor-kantuak, xaribariak, kukurrukuak, eztei- eta eskekantak, fatrasiak, itzal-antzerkiak, hatz-jokoak, ixipuak, marijesiak, soldadu-kantuak, olerki dekoratiboak, jolasak...


Tradizioak eskura jarri dugun haur poesia horretan jenero desberdinak daude; estrategia poetiko desberdinez osatutako poemak eta egitura poetikoak ditugu, eta guztiek ez dute berdin funtzionatzen. Prozedurak desberdinak eta etekinak ere, halaxe.

Gurean etnografoek-eta baliatu dute material hori guztia, eta, poeta batzuek kenduta –Lizardi,

Gandiaga, Leukona...–, gutxi begiratu zaio talai poetikotik.

Beti iruditu zait behar-beharrezkoa material horren guztiaren azterketa literarioa egitea. Lehendabizi, materiala sailkatu behar litzateke, eta sail bakoitzaren nolakoa aztertu. Helburua ez da, inondik ere, halako saio akademizista bat egitea, poesia-mota bakoitzaren izaera eta jokabidea aztertuz, horien bidez sortzen den mirari poetikoa deskribatzen saiatzea baino. Lan horrek, geure altxorra askoz ere hobeto ezagutzeaz gainera, aurrerako bidea ere erakutsiko liguke.

Horrek guztiak ez du ukatzen beste literaturetako haur poesia ezagutu beharra. Aitzitik: gurea bezalako literatura idatzi urriko jardun batek inguruan bilatu behar ditu etxeak ase ezin dituen hutsuneak, baina etxean dena hutsune eta dena zulo dela pentsatu gabe, bestela beti baitako nor-tasun handirik gabeko halako jardun mimetiko batean aritzeko arriskua.





7. Maletarena

Tradizioaz hitz egin dut orain arte, baina geu ere tradiziozileak gara: belaunaldi tristea eta mutua litzateke geurea datozen belaunaldi tradizio berritua eskainiko ez bagenie. Haur literaturari dagokionez eta, bereiziki, haur poesiari, inork ez du zalantzarik gure belaunaldiak –eta zentzu zabalean darabiltzela belaunaldi hitza– asko eman diogula gure historia laburrari. Beti ez oso zuzen, beti ez eskal senaren bidetik, baina ezin ukatuzko ahalegina egin dugu.

Sortzaileak ere bagara eta, sortzaile izanik, tradiziozile.

Margherite Yourcenarrek maleta ireki batekin konparatzen zuen itzulpena. Irudi guztiz egokia da maletaren hori, baina ez itzulpenarentzat bakarrik, idazkuntza bera ere maleta egitea bezalakoa baita.

Maletak bidaiaria bat egiteko asmoa suposatzen du, bidaiatzeko gonbite bat da, eta bidaiaria hori sormen poetikoak egiten duena da. Maleta ondo bete eta ondo hornitzea da kontua. Baina ez dakizu zer eguraldi egingo duen, zer beharko duzun, zer nolako ustekabeak izango dituzun bidean. Halatan, hainbat objektu sartzen hasten zara. Bainujantzia, aspirinak, nobela bat. Baina horra non lagun batek abisatzen dizun zozen lekuan euri asko egiten duela; hori entzunik, zuk bainujantzia atera eta aterki bat sartzea erabakitzen duzu. Aspirinarekin batera, *almax* hartzen duzu, zurekin elkartuko diren lagunak aitzakia ezin hobea izango baitituzu zurruta pixka bat egiteko. Pentsatzen jarrita, garbi duzu bidaiaria horretan aurkituko dituzun adiskideak oso poesia zaleak direla, eta olerki-liburu bat sartzen duzu maletan nobelaren ordean, ordu libreak hobeto entretenituko dituzulakoan.

Hartutako erabakiak ez dira, ordea, behin betikoak: aterkiak gabardina iradoki dizu, baina toki gehiegi hartzen du. Gabardinaren ordean, zira. Horrela, zeuden objektu batzuk mantendu, beste batzuk aldatu, maleta berritzen ari zara. Ob-

jektu hau ondo al dator beste horrekin, batek ez al du bestea ukatzen, halakok ez al du toki gehiegi hartzen, beste horrek ez al du ondoan duena zimurtuko? Pixkana-pixkana, maleta betetzen duzu. Baina bidaiaria irauten duen bitartean ere maleta hustu eta maleta bete, orain hau sartu eta gero beste hura atera segitzen duzu.

Hitzekin eta idazketarekin ere horrelaxe: hemen enbarazu egiten ari zaizun hotsa atseginez portatuko zaizu beste hitz haren ondoan.

Orain urte batzuk, uda parteko arratsalde batez etxean lanean ari nintzela, haur batzuk sentitzen nituen etxe inguruan jolasean. Lauzpabost urte zituzten. Halako batean, sekulako euri-zaparrada bat. Haurrak ezkaratzean gorde ziren eta erdi kantuan hasi, euri-zaparrada imitatzen: *ale, ale, ale*. Zaparrada gogorrago, haurrak ere halaxe: *ale, ale, ale*. . . Halako batean, haurretako bat *dale, dale, dale*, hasi zen. Denek segitu zioten. Beste batek *kale, kale, kale* egin zuen, baina inork ez zion jaramonik egin. Hainbat saio egiten segitu zuten, batzuk besteek baino arrakasta gehiagorekin: *ola, ola, ola* batek, *bale, bale, bale* hurrengoak, *ane, ane, ane*, beste batek. . .

Hotsen hautamenak egiten du poema bat ona ala kaskarra, bidaiaria bat atsegina ala ez.

Hotsa, haurrentzat batez ere, esperientzia akustikoa da lehendabizi eta ororen gaineratik: belarri-ara heltzen zaio, adimenera baino askoz ere lehenago. Poesia dekoratiboak eta jolasak dira esaten ari naizenaren adibiderik gorenak.

Azkenik

Aurrez kontakizun edo hausnarketa filosofiko gisa pentsatu dena bertsoz jartzea ez da poesia; besterik da esatea poesiak pista asko ematen dituela kontakizunetarako zein hausnarketa filosofikorako. Poesia imajina da batez ere eta imajina horrek sortarazten digun emozioa; mundua hitzaren musikaltasunarekin ikusteko modua; sorpresa bat, zerbaitenganako liluran jaiotzen den

⇨ Hizpide ⇨


Lizardiren goi-arnasaren gogoak ere berri-berri segitzen du guk arreta pixka bat jarri orduko:

Maite ditut gailurrak

Argiak ez beste...

Ai, hegazia banintz,

Gainik-gain nenbilke!



Egiteko dauzkagun lan batzuen artean, tradizioz jasotako haur poesiaren sailkapena eta azterketa da, agian, luzarora etekin gehien emango ligukena. Ez da egun betetik bestera egiteko lana, baina badago makina bat lan osagarri gure poetikaren deskribapen zehatz sakona noiz egingo zain gelditu gabe ere: baladen antologia haurrentzat eta haur poesiaren ikuspegitik begiraturara; hainbat egitura poetikoena (jolas, irri, dramatizazio...); gure poeten irakurketa haur poesiaren talaiatik...

Sánchez Romeralen hura berriro ere neurera ekarriz, material tradizionala ez da *esan den* edo *esan zen* zerbait; gaur ere *esan egiten den*, eta esanak berritu egiten duen zerbait dinamikoa da.

Mila esker.

ekintza artistikoa. Baina bada, bestalde, esan nahi eta esan ezinaren porrot etengabea; misteriozko izaeraren altzoan arakaten duena, nahiz poetak badakien ez duela sekula misterio hori argituko. Airean jasotako eraikin ikusezina da eta agortzen ez dena.

Halatan, balada zaharreko tragedia zaharra soineko berriz janzten dugu esaten edo entzuten edo irakurtzen dugun aldiko:

Zerutik jauzi da habea,
Jo du Lasturko torre gore,
Eroan ditu hango jauna eta andrea,
Bata lehen, gero bestea.

Halatsu berritzen zaigu Bilintxen bertsoko ezezko erretorikoa ere:

Ez, ez eta ez,
Merezi bezain kopeta beltzez
Esango dizut ezetz eta ezetz!



↔ Hizpide ↔

Haurrek gustuko dute poesia, ala ez ?

ANTONIO GARCÍA TEJEIRO



Eta hor da galdera:

Haurrek gustuko al dute poesia?

Eta berehala dator erantzuna:

Ez, noski, ez.

Aspertu egiten dira / Ez dira hurbildu ere egiten / Ez diote erreparatzen / Ez dira ohartzen aho-korapiloak, hitz-jokoak, igarkizunak ere... poesia direla!

Zeren hori bai, hori gustuko baitute.

Pentsatzen jarri behar ote dute? Nik ez dut uste.

Haiengana eraman, eta harekin plazer hartzen irakatsi.

Hasiera batean, helduek bezala jokatzen dute; helduei kostatzen bazaie, haurrei areago.

Printzipioz, jokabide eta sentimendu berak errepikatzen dituzte:

–Ez nago prestaturik.

–Kurtsi samarra da.

–Sentimenduak niri?!

–Aspertu egiten nau.

Eta nik irakurri egiten diet:

«Me digo y me retedigo.

¡Qué tonto!

Ya te lo has tirado todo.

⇨ Hizpide ⇨

*Y ya no tienes amigo,
por tonto. Que aquel amigo
tan sólo iba contigo
porque eres tonto.*

¡Qué tonto!

*Y ya nadie te hace caso,
ni tu novia, ni tu hermano,
ni la hermana de tu amigo,
porque eres tonto.*

¡Qué tonto!

Me digo y me lo redigo...»

«Behin eta berriz diot:

Tontolapiko!

Errekara bota duzu guztia.

Eta ez daukazu lagunik,
tontolapikoa zarelako.

Lagun hura zurekin zihuan
bakar-bakarrik

tontolapikoa zarelako.

Zein tontolapiko!

Eta inork ez dizu kasurik egiten,

ez neskalagunak ez anaiak

ez lagunaren arrebak,

tontolapikoa zarelako.

Zein tontolapiko!

Behin eta berriz diot...»

Eta barre egiten dute,

eta algara sortzen da.

Baina... Gustuko al duzu poesia?

Bai, bai, ez, ez.

Eta norbera poeta

izaki

eta haurra zelarik
ez baitzuen poesia maite,
inork ez baitzuen poesia maite
aspertu egiten
baikinen.

Eta norbera poeta izaki (lehen poesia
maite ez zuen poeta)

harik eta musika/poesia bikoteak
aldaketa eragin zuten arte:

Paco Ibáñez/Serrat.

Horra bitartekariak.

Eta ezagutu nuen.

Como tú (Zu bezala) Paco Ibañezen ahotsean (nire literatura-irakaslerik onena)

«Así es mi vida,

piedra,

como tú; como tú

piedra pequeña;

como tú,

piedra ligera;

como tú,

canto que ruedas

por las calzadas

y por las veredas;

como tú,

guijarro humilde de las carreteras;

como tú,

que en días de tormenta

te hundes

en el cieno de la tierra

y luego

centelleas

bajo los cascos

y bajo las ruedas.»



↪ Hizpide ↪



«Hala da nire bizitza,
harria,
zu bezala; zu bezala,
harri txikia,
zu bezala,
harri arina,
galtzara eta
bidexketan
biraka doan errekarria;
zu bezala,
errepideetako txintzar umila;
zu bezala,
ekaitz egunetan
lurreko basan
hondoratzen zara,
eta gero
txinpartak ateratzen dituzu,
apatxen azpian,
gurpilen azpian...»

Hurrek bitartekariak behar dituzte.
Bitartekariak behar al dituzte?
Sinesten al ditugu maitagarri-ipuinak?
Nik, behintzat, ez.
Ez bederen hurrek berez hitzekin,
poemekin jolas egiten duten ipuin horiek.
Nondik ote hitzekin jolas egiteko gaitasun
hori?

Jolas egiten baitute... eta hitzen musikaltasunari amore ematen diote.

Eta kontu asko datozkizu burura:
Poeta da / poesia maite du
baina lehen ez zuen maite;
poesiarekin jolas egiten du / baina ez zuen jolas egiten
poesia erabiltzen du / baina ez zuen erabiltzen.

Norberak kateak hautsi nahi ditu,
paisaje berriak sortu,
hurrek poesia aintzat hartzeko / bizitzeko /
emozioak izateko moduko
egoerak asmatu nahi ditu,

poesiaren erritmo, musika, buru-
gabekeriekin.

Eta orduan inozo-itxura hori gal-
du, eta serio jartzen da norbera.

Erabil ezazu burua.

Utz ezazu aparte bihotza tarte batez.

Irakur ezazu poema bat:

*«Polo mar nada un peixe
tras un barco de vela,
nada e nada o peixiño
cara ó colo da area.*

*O peixiño vai canso
na procura da terra,
cristalinas as ondas
o seu corpo abanean.*

*Perde folgos o peixe
jai, que á praia non chega!
¡Que lle bote unha corda
o barquiño de vela!»*

Eta gogoetan jartzen da norbera.

Eta gogoeta egiten du:

Garrantzizkoa al da hurrei poesia gustatzen
zaien jakitea?

Eta duda egiten du norberak.

Garrantzizkoa –erabakitzen du norberak, go-
goetaren ostean– poesia hauren ondoan bizi iza-
tea da,

haien interesekin batera, eta xarma horiekin
haurrak txora daitezten.

Zentzua eman diezaien, haiek konturatu gabe.

Beren hitzen jabe bihur ditzan,

beren irudien sortzaile,

beren hitz-jokoen asmatzaile.


Eta gogoeta egiten dut: Bitartekari bat behar
dute,

eta nik izan behar dut bitartekari hori.

Baina nik ez dut poetarik nahi,

poesia maitatzen duten / edo gorroto ez duten
pertsonek nahi ditut.

↪ Hizpide ↪



Eta serio jartzen da berriz norbera,
eta eite ia profesionala jartzen zaio.
Eta gogoeta egiten du norberak,
eta idazten du:

*«Nunca quixen esquecer
por que cortaron as flores,
por que trocaram os nomes,
por que marcharon as cores.
Nunca quixen esquecer
nin afogar os recordos
nin arredar os pasados,
nin escoitar versos xordos.*

*Nunca quixen esquecer
e endexamais esquecer
lembranzas de tempos idos
que forman parte de min».*

«Ez nuen inoiz ahaztu nahi izan
zergatik moztu zituzten loreak,
zergatik aldatu zituzten izenak,
zergatik aldendu ziren bihotzak.
Ez nuen inoiz ahaztu nahi izan,
ez oroitzapenak ito,

ez iragana alokatu,
ez lelo-bertsorik entzun.
Ez nuen inoiz ahaztu nahi izan,
eta ez nuen inoiz ahaztu
joandako garaietako oroitzapenak,
nire baitako zatiak baitira.»

Eta gustatzen zaie esaten diezun hori.
Eta herri poesia irakurtzen diezu.
Hastapenetara itzultzen zara,
zure, haien, guztion hastapenetara.

*«Levita, levitón
tres pitas e un capón
O capón estaba morto
e as galiñas no horto.
Tris tras
cabaleiro
fóra estás.»*

«Don-don Kele-don,
Keledongo elizan,
zazpi gizon dantzan,
nahi duena, nahi duena
kanpora.»

Eta poesia dela esaten diezu,
eta harriduraz begiratzen dizute.
Eta esaten diezu badirela ahozko tradizioa abia-
puntu hartuta idazten duten pertsonak.
Eta irakurtzen diezu:

*«Había una nenita en Tacuarí
que solamente hablaba con la i.
¡Qué papelón, un día
delante de su tía,
en lugar de “papá”, dijo “pipí”!».*

Horiek poetatzat dituzte.
Zu, berriz, ez.
Zu irakaslea zara,
bitartekaria.

↪ Hizpide ↪

Eta orduan poesiak berezko bizia izan dezan giro egokia sortzen duzu, eskolako dinamika pedagogikoak sortzen duen giro didaktikotik aparte.

Poemak atera egiten dituzu testu-liburuetatik, hormak poemez josten dituzu, poemez elikatzeke moduko suak egiten dituzu, edo hostotzat poemak dituzten arbolak, eta poemak musika bihurtzen dituzu.

*«Milleiros de andoriñas
alá polo marzal
brincaban polo ceo
brincaban polo mar.»*

*Milleiros de andoriñas
alá polo marzal
voltaban ós seus niños
voltaban ó fogar.
Milleiros de andoriñas
alá polo marzal
bailaban muiñeiras
bailaban no luar.»*

Eta Antonio Machadoren poema gogorarazten diezu:



*RECUERDO INFANTIL
Una tarde parda y fría
de invierno. Los colegiales
estudian. Monotonía
de lluvia tras los cristales.
Es la clase. En un cartel
se representa a Caín
fugitivo, y muerto Abel,
junto a una mancha carmín.
Con timbre sonoro y hueco
trueno el maestro, un anciano
mal enjuto y seco,
que lleva un libro en la mano.
Y todo un coro infantil
va cantando la lección:
mil veces ciento, cien mil,
mil veces mil, un millón.
Una tarde parda y fría
de invierno. Los colegiales
estudian. Monotonía
de la lluvia en los cristales.*

Eta banaka eta taldean irakurriko dute, erritmoa zainduz, era soilean, hitzen adierazteko indarra erabiliz, zerbait ahots gora esateak sortzen duen ilusioaz, esandakoak gero bizia hartuko baitu airean, eta gure bihotzean.

Eta beti-berdinkeriarri ihes egingo diote, kristalen atzean euria izanik ere.

Eta irakurri, eta errepikatu, eta berriz errepikatzen dute. Haur abesbatza hori poema irakurritz doa:

*LOS REYES DE LA BARAJA
Si tu madre quiere un rey,
la baraja tiene cuatro:
rey de oros, rey de copas,
rey de espadas, rey de bastos.*

⇨ Hizpide ⇨

*Corre que te pillo,
corre que te agarro,
mira que te lleno
la cara de barro.*

*Del olivo
me retiro,
del esparto
yo me aparto,
del sarmiento
me arrepiento
de haberte querido tanto.*

Eta poetak aipatzen dizkiezu, berez haurrentzat idatzi ez bazuten ere, haiek ulertu eta gozatzeko modukoak, haiek bertsoleroetan adierazitako sentimenduekin identifikatzeko modukoak.

Eta haietako askok haurrentzat ere idatzi zutela jakiten duzu.

Eta haien bizitzako zerbait komentatzen diezu, liluratuko dituen zerbait.

*«Caminante no hay camino
sino estelas en la mar..
Hace algún tiempo en ese lugar
donde hoy los bosques de visten de
se oyó la voz del poeta gritar
“Caminante no hay camino
se hace camino al andar..”
golpe a golpe, verso a verso..*

*Murió el poeta lejos del hogar.
Le cubre el polvo de un país vecino.
Al alejarse, le vieron llorar.
“Caminante no hay camino,
se hace camino al andar..”
golpe a golpe, verso a verso..*

*Cuando el jilguero no puede cantar
Cuando el poeta es un peregrino,
cuando de nada nos sirve rezar.
“Caminante no hay camino,
se hace camino al andar..”
golpe a golpe, verso a verso.»*

Neskatila bat negarrez ari da abestia eta azalpena entzun ahala, Antonio Machadoren zori-txarra.

Eta orduan ohartzen zara: zerbait mugitzen ari da.

Eta poesiarekiko errespetu handia sumatzen duzu.

Ludikotasunetik esparru intimora igaro gara, pasadizotik sentimendura; eta freskotasunik galdu gabe, hori baita garrantzizkoa.


Ezer sakralizatu gabe, baina... hutsal bihurtu gabe hala ere.

Eta poema-zatiak aukeratzen dituzte, bertso-lerro zatiak.

Eta gogoeta egiten dute:

*«La luna peina cabellos
con pincelitos de plata».*

(OLGA XIRINACS)



⇨ Hizpide ⇨

Egileak bere ametsak adierazten ditu, eta kutsatu egiten gaitu irakurleok oso era baikorrean.

«*Antes eran más grandes
más altos, más anchos...
pero merman como las hojas sin vuelo.*»

(ANA M^a FERNÁNDEZ)

Penaz, denborak fisikoki pertsonari eragiten dien hondamena bideratu zidan.

«*Nunca desde los labios que te beso
nunca
desde la voz que dice: "No te vayas".*»

(PEDRO SALINAS)

Norbait maiteminduta dago, eta maite duen pertsonari gelditzeko esaten dio. Tristeziak abailduta daude bertsolerro horiek.

Eta sortu ere sortzen dute, idatzizko formulak errepikatuz joan baitira, poesia «inguratzeko» aritu garen bitartean.

«*El sol expande su risa
A puros golpes de brillo*

(A. GÓMEZ YEBRA)

Bertsolerroa hausten dugu:

«*A puros golpes
de brillo
tu risa
se viste
de verde
de rosa
de amarillo.*»

«(Eguzkiak bere barrea zabaltzen du) distira kolpe hutsekin.»

Bertsolerroa hausten dugu:

Distira
kolpe hutsekin,
zure barrea
janzten da
berdez,

janzten da
arrosaz,
horiz.



Eta, gogoeta egin ondoren, beretzat poesia zer den idazten dute:

«Poesiak zorion-sentipenak sortzen dizkit, baina baita amorrua, mina, gizarte-kritika.»

«Ez zitzaidan gustatzen. Poemak kantu modura abesten hasi ginenetik, txoratzen nau.»

«Hitzekin jolas egin ahal izatea. Poema dibertigarriak, burugabeak, tristeak sortzea.»

«Poesia sentimenduak adierazteko tresna da, irakurleei gogaerak aldatzen dizkio, emozioak azaltzen ditu.»

«Nahiago dut entzun, irakurri baino. Haren musikaltasunak liluraten nau.»

«Orain gustuko dut. Poliki irakurtzen dut, soseguz. Lehen ez nion zentzurik ikusten.»

«Maitasun-poesia baizik ez zait gustatzen. Izan ere, maiteminduta nago.»

«Barnea hustutzeko balio dit, batez ere maitasunean; eta ez dut uste kurtsi eta burugabea denik.»

«Gustuko dut poesia, beti dagoelako poema bat zure bizitzako pasarte bakoitzerako, eta bizitzako esperientzia bakoitzerako.»

«Gustuko dut gauzez irakurtzea. Amari irakurri, eta irribarre egiten du. Eta amaren irribarrea poema bat iruditzen zait.»

Eta norberak idazten jarraitzen du:

«*Toma esta chave.
Abre os meus beizos
pero non raches
o meu silencio.
Abre os meus labios,
tes moito tempo.
Ti ben coñeces
a voz do vento.
Faino con calma.
Faino con xeito.*

⇨ Hizpide ⇨

*Quero vivir
Non beixo eterno».*

Baina batzuek ez dute maite poesia. Aspergarri egiten zaie, eta batek hola dio: «nahiago dut sentimenduak zuzenean azaldu, irudiak faltsuak iruditzen zaizkit».

«Ez ditu, batzuek dioten bezala, sentimenduak adierazten. Bizitza esperientzia bat da, zertarako idatzi? Ez da zilegi denbora nahi dituzun baina egitera ausartzen ez zaren gauzak idazten ematea», diote beste batzuek.

«Idazteko modu bat da, besterik gabe. Emozioa ez da benetakoa», zezenari adarretatik heldu zale batek.

Gustuko dutenei, ez dakit dioten bezainbeste maite ote duten, baina ez dute gorrotatuko, errespetatu egingo dute, errespetatzen dute dagoeneko, eta, handi izanik, ez dira haren beldur (helduen modura).

Orduan, gogoeta serioa egiten duzu berriz:

Hainbeste irakurri, idatzi eta entzun, eta hainbat iritzi baloratu ondoren, uste dut gauza batzuk garbi ditudala (nahiz eta, berriz pentsatuz gero, beharbada ez diren hain garbi egongo): bihotzeko gauzak, zein burukoak, eta beste.

Eta norberak uste du honakoa daukala garbi:

Poesiak, besteak beste, honako helburua duela (helbururik poesiak?): pertsonak era ezberdinetan ikus dezagula bizitza, eta bizitza hori modurik aberasgarrienean bizi /senti ahal izan dezagula; kezkatzen nau hori horrela izan dadin.

Begien bistakoa iruditzen zait poesia zer bat positiboa dela (baliagarria, ez erabilgarria) eta sentikortasuna hezi / findu egiten duela, gauzak ikuspegi ezberdinetatik ikusteko bidea ematen dizula, izpiritu kritikoa sustatzen duela, eta hitzen indar, magia eta bihurrikeriaz gozatzeko aukera ematen dizula.

Ez daukat dudarik haren balio ludikoaz eta, neska-mutiko guztiak bat datoz horretan, sentimenduak adierazteko duen gaitasunaz.

Eta, poesiaz hitz egitean kutsatu ohi dudan gogo bizia hor delarik ere,

Gustuko al dute haurrek poesia?

Ez naiz oso fio haien erantzunekin.

Edo fidatu behar al nuke?

Bilakaera bat dago herri-poesiatik egile-poesiara; paraleloki, errezitatu, irakurri, antzestu eta idatzi egiten dute, eta badirudi haurrek gustuko dutela poesia.

Norberak, euforia betean, baietz esaten du, seguru baietz.

Gero, berriz gogoeta eginez jarriz gero, beldurra sartzen zaio norberari. Irauten al du euforia egoera horrek, urteak aurrera? Gai al dira poemak bere kasa irakurtzeko?

Bitartekariaren eskua desagertuta, zer geratzen da?

Kutsatu aditza joka dezakegu?

Zalantzak eta erantzun lausoak.

Baina bitartekariak poesia eskura jarrita, oso ikasle ezberdinak holako gauzak esateko gai baldin badira...

«Izan ere, poesia niretzat munduko seigarren miraria da. Gustuko dut, haren bitartez sentimenduak adierazi ditzakedalako, eta beste egileena irakurritz gero haien emozio eta pentsamenduak bidaltzen dizkidalako.

Niretzat, esan ezina adierazteko artea da, barruan gordeta daukazun eta sentitzen duzun guttia adierazteko.

Poesia bizitza da, ura, haizea, maitasuna. Poesia dena da».

Norberak, bere burua engainatzen ari ote den ezjakin, aurrera begira jarri eta baietz esaten du.

Ez naiz baikor horietakoa, baina baietz diot.

Ez naiz mundu idealizatu batean bizi, baina baietz diot.

Norbait / norbaitzuek inozoa naizela pentsatuko dute... Tira, apur bat bai, zorionez, baina ez hainbestearino, eta ausartu egiten naiz esaten gustatu arazi egin behar zaiela.

↪ Hizpide ↪

Bitartekariak haiekin batera jokatu du kutsatu aditza.

Haurrek poesia maite dezaten saiatu behar du norberak, ez da inoiz saiatuko haiek poeta bihurtzen (Janer Manilak hala esaten du).

Eta norbait, bitartekari horrek:

–Bertsolerro batean labain daitekeen edertasuna igorriko die.

–Hitz poetikoa elementu ludiko eta estetiko bihurtuko du, dibertigarri eta emozioagarri.

–Poesi intentsitateko uneak sortzen lagunduko du (gogoetak, sorkuntza; poetak, haien bizitzak eta liluratuko dituzten pasadizoak ezagutaraztea).

–Hitzak jostailu bihurtuko du, eraldatu, hautsi, birsortu daitekeen jostailua; barrea eta jolasa eragingo diena.

–Hizkuntza poetikoa zerbait aberats, zehatz, bikain gisa aurkeztuko du, baina aldi berean zerbait probokatzailerik gisa, eta lehentasun berezia emango die hots, erritmo, argi eta usain elementuei.

–Eta haurrak ohartu behar dira bitartekari horrek sinetsi egiten duela esaten, egiten duen horretan; jatortasuna eta bat-batekotasuna agerikoak izan behar ditu.

–Poemak eskura jarri behar dizkie.

Eta aldeko atmosfera hori sortutakoan, eta haurra poesi sorkuntzaren bidezidorretan galtzen denean, hitz ederren itsasoan, emozio eta komunikazioaren zeruertza bistatik kendu gabe edertasunean sortutako irudien dardarizoan galtzen denean, norberak beste aukerarik ez du baietz esatea baino, haurrek gustuko dutela poesia, helduek ez bezala (horra arazo nagusia). Helduak haren beldur dira, errespetua diote baina ez zaizkio hurbiltzen, barregarritzat jotzen dute oharkabean, beren paretik pasatzen uzten diote baina zeharka baino ez diote begiratzen.

Eta haurrak, hori guztia egin ondoren, poesia gustuko ez badu, gorrotorik ere ez dio izango,

berarentzat ez baitzen izan herri-poesiatik testu-iruzkinera egindako urrats bat.

Eta ate bat zabalik utziko du, egunen batean, oharkabean ia, poema bat bere bizitzan itzuri dakion eta, nork jakin, beharbada poeta bat baino gehiago betiko!

Haurrek gustuko dute poesia, bai ala ez?

Helduek gustuko dute poesia, bai ala ez?

Denok fidatu behar dugu hitzaren balioan, hitza maitatuko dugu, hitza jantzi eta biluztu, maitekiro erabiliko dugu, hari eutsiko diogu, eta haizeari eskatuko diogu hitzok itzultzeko, kurdelkeria handiko une batean ostutzen badizkigu.

*«Que as traia de novo,
que quero berralas,
que quero dicilas
ben forte as palabras.
Levounas o vento
a cambio de nada.
Deixoume unhas follas,
rumores, borralla.
Palabras fermosas.
Palabras gastadas.
Palabras. Palabras.
No vento zoaban.»*

«Berriz ekar ditzala,
oihukatu nahi baititut,
indar handiz esan
nahi baitut hitzok.
Haizeak eraman zituen,
ezerezen trukean.
Hosto batzuk utzi zizkidan,
zurrumurruak, zirtzileria.
Hitz ederrak.
Hitz higatuak.
Hitzak. Hitzak.
Haizean zihoazen.»

Itzulpena: GERARDO MARKULETA



↪ Hizpide ↪

Baina hau guztia, diot, orain dela gutxi arte gertatzen zen. Gure gizarte moderno mendebaleko honetako aldaketa sozio-ekonomikoek errortik moztu dute lengoaia poetikoaren formarik soilenen bidezko komunikabide hori, ahozko tradizio beneragarria.

Guztiarekin ere, haurtzaindegia, umezaintza-eskolak, aureskolak eta eskolak saiatu dira, begi zorrotzez, haurrari ahozko poesia ezagutarazten zion ondare tradizioaletik ahal zutena gordetzen. Baina, egia esan, aureskoletatik alde eginik, gure haurrak, apurka-apurka, galduz doaz hain aldi laburrean erabilitako lengoaia horrekiko lotura guztiak. Ez eskolan ez eskolatik kanpo aurkitzen dute gure aitona-amonen abesti haiek betetzen zuten funtzioa bete dezakeen ordezkorik. Nerabe direlarik, Verdaguer, Carner, edo Foix, Juan Ramón, Cernuda edo Guillén-en tradizio idatziaz gozatzeko adina izango dutenean, lengoaia poetikoa jada ia-ia museoko bitxikeria izango da haientzat, esperantoaren edo idazkera kuneiformearen parekoa. Hala bada, galdu dugu ahozko tradizioak bereizketarik gabe mundu guztiari eskaintzen zion hori, baina horren truke ez dugu ordezkorik aurkitu idatzizko tradizioaren bitartez, bakan batzuegana heltzen baita bakarrik.

Eta, hala eta guztiz ere, haurrek berez jarraitzen dute lengoaia poetikoarekiko oso sentibera izaten (neure esperientziak, nire seme-alabekin edo tarteka poesia irakurtzera gonbidatzen nauten eskola edo kultur etxetako haurrekin, ematen dit hori esateko bidea). Arazoa da sentiberatasun hori nola elikatu; izan ere, haurtzaindegiko abestitxoeetatik *Sol i de dol* edo *La realidad y el deseo* liburuetakoa poemetara, jausleku zabalegia dago jauzi batez zeharkatu ahal izateko.



Maisu-maistra batzuek –ahalegin eskergarria– haurrek ulertzeko moduko «poesia helduko» poema edo estrofa solteak bildu dituzte, baina bistan dago hori behin-behineko konponketa besterik ez dela. Arazo nagusia, azken batean, gure artean ez dagoela haurrentzako literatura poetikorik. Gure Mediterraneo arazoitsuaren ertzetan ez bezala, Europa iparraldeko poetek oso gauza naturaltzat dute noizean behin haurrei zuzentzea. Dudarik gabe, Ingalaterrako poesiaren kasua da ezagunena: Robert L. Stevenson eta Lewis Carroll-engandik hasi eta Ted Hugues-ganaino, tartean Walter de la Mare edo T. S. Eliot –mundu anglosaxoitik kanpora hain ezagun ez diren Edward Lear edo A. A. Milne ez aipatzeagatik–, haur ingelesdunek hautatzeko moduko corpus poetiko bat dute, zerekin jostatu eta libretitu, barre egin eta liluratu. Haur alemandunek, aldiz, lehen mailako idazleen bertsulerroak dituzte –Christian Morgenstern, Frank Wedekind, Bertolt Brecht, Hans Magnus Enzensberger. Gauza bera esan genezake literatura eskandinaviar edo eslaviarrari buruz. Gure artean, ordea, gauzak oso bide ezberdinetik dabilta (edo ez dabilta). Kataluñako literaturan, haurrentzako poemak utzi dituzten lehen mailako idazle bakarrek (Carner, Manent

edo Martí i Pol) ez dute, guztien artean, ezta hirurogei poema labur-labur. Eta, tamainak tamaina, gaztelaniazko poesia ere ez dago gurea baino askoz hobeto: Lorcaren poema-sorta txiki-txikia ez dira nahikoa hain hutsune nabarmena estaltzeko.

Sentitzen dut aitortu beharra, baina ez dakit nola dagoen gaia euskal literaturan edo literatura galegoan, baina beldur naiz ez dela askoz hobeto egongo.

Poetok, sarri, xaloki harritzen gara gure generoak gero eta

↪ Hizpide ↪

irakurle gutxiago direla-eta baina, egia esan, ez dakit gauza handirik egiten dugun, garai batean poesia irakurle onak izateko aukera dutenen hezkuntza poetikoaren alde.

Eta egiteko hori poetek beste inork ezin egin dezake, ez borondate oneko maisu-maistrek edo amona saiatuek, azken batean kontua zera baita, haurrei helduei eskaintzen zaien kalitate maila bereko poesia eskaintzea. Eta ausartu ere ausartuko nintzateke esatera premiazko egitekoa dela: gurea bezalako gizarte batean, hitz batek mila irudik baino gehiago balio duela ahaztu nahi izan baita, sustraietatik beretik pertsona egiten gaituen zerbaitekiko sentikortasuna berreskuratzeko lana ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Hala bada, nahiz eta, bai, gezurra dirudien, gure «errepublikan» poetak oraindik izan daitezke komunitate erreferentzia –nahi den bezain txikia izanik ere–; esana dut poetak irakurle ezaz kexu garela, baina idazterakoan areago dirudi egiten dugula halako kritiko eraginkor baten begikotasuna lortzeko, edo udal sari mamitsu baten duin izateko, edo halako irakasleak unibertsitateko mintegi batera gonbidatu edo bere literatura eskuliburuan sar gaitzan. Esan oi dugu irakurleak gutaz futitzen direla, baina ikusi beharrekoa litzateke ez ote den izango lehenago sarriegi futitu garelako haietaz. Badirudi poetok ez dugula ohartu nahi Salvador Espriu gureak aipatzen zuen –haientzat idazten omen zuen berak– «jende on» horrek norbait gehiago hartzen duela barruan, oraindik basamortuan predikari dabilzan lau literatura-irakasle horiez gain. Egokitu zaizkigun garai haue-tan, hain beharra baita hitza, elkarrekin hitz egiteko eta elkarrekin kantatzeko, axolagabeziak benetako inmoralitate baten jantziak hartzen ditu, benetako gizalege-urraketarenak.



Arestian nioen moduan, oso txikitatik, etorkizuneko helduek izugarri belarri fina dute poesiarako. Hasierako potentzialtasun hori profitatzen jakiteak ez du behar pedanteria pedagogiko askorik ez errezeta didaktiko zehatzegirik ere. Bene-benetan beharrezko den bakarra da belarri horietan oihartzun egingo duen poesia aurkitzea, haiengan arrastoren bat utziko duen poesia aurkitzea (eta, jakina, tartean, oztopo gaindiezin gisa, jarriko ez diren maisu-maistra –eta guraso– batzuk).

II

Baina, non aurkituko ote dugu poesia hori? Ba al dago benetan haurrentzako poesia bat? Nire tesia da badela, nahiz eta gurean ordezkapen gutxi izan, genero poetiko bat bereziki haurrei zuzendua, eta garbiro sortua ahozko ondareko poesia galdua ordezkatzeko. Dei dezagun «haur poesia» (parentesi artean: errefusa egiten diot «eta gazte» tartekatzerara, uste baitut gazte literatura deitutakoa industria editorial asezinaren iruzur erraldoia dela). Haur poesia, beraz, ez litzateke haurrek idatzitako poesia, ezpada haurrentzat idatzia. Idazle profesionalek idatzitako poesia, haur literaturako «espezialista» izan, edo haurrentzat ere idazten duten adjektiborik gabeko idazleak izan. Haur poesia, beraz, genero poetiko bat da, beste edozein bezalakoa, besteen duintasun eta errigore artistiko berarekin. Genero honetako lan bat maisu-lana edo kaxkarkeria okaztagarria izatea, egilearen trebetasun eta kalitatearen baitan dago, ez sekula generoaren balizko on edo gaitzaren baitan. Erdipurdiko idazle batzuk, eman dezagun heldua den literaturan porrot egindakoak, batzuetan haur literaturan babes hartzea, kontu nardagarria da, baina horrek ez luke generoaren duintasun izatezkoa zikindu beharko.



Aurrera baino lehen, «poeta» terminoaren norainokoa zehaztu beharko litzateke, haurrentzako genero honetan. Zeren, helduen poesian «poesia» hitza gaur egun ia bakar-bakarrik poesia lirikoaren kontzeptuari baldin badagokio, haurrentzako literaturan poesia lirikoan bigarren mailako lekua dauka, haur poesian alderdi ludikoa nagusitzen baita, hots, berba-jolasa, izan fantasia fonetikoa, sintaktikoa edo semantikoa. Jolas hori doakoa eta desinteresatua izanik ere, horrek ez du kentzen alderdi «erabilgarriago» bat, era didaktikokoa, aurrerako aipatuko dudana. Azken batean, beraz, haur poesiak ederki betetzen ditu oinarrizko ezaugarriak, *dulce et utile*, dagoeneko Horazio xaharrak adjektiborik gabeko poesiari eskatzen zizkion bezala. Laburbilduz, beraz, esan genezake modurik soil eta pretentsiorik gabekoan, haur poesia haurrek erabiltzeko bertsozko literatur generoa. Generoan ez lukete lekurik arrazoi didaktiko, mnemotekniko eta ez-literarioengatik errima dutenek (gogora dezagun irakaskuntza klasikoan kontzeptu asko trikimailu horri esker ikasten zirela buruz). Haur poesia, esan dudanez, beste edozein genero bezalakoa eta, horren ondorioz, beste edozein genero poetikotan bezala, barnean izan dezakeen «predikazioa», egile bakoitzaren pasio predikatzailearen baitan dago, eta ez beste ezertan; predikazio hori elementu estu itsatsia, josturarik gabea, izatea lanaren gainerako alderdiekin, hori ere erabat egilearen trebetasunaren baitan dago bakarrik: izatez, irudimen sortzailea eta borondate didaktikoa ez dute zertan bat bestea baztertu, nahiz eta mundu guztiak ezagun duen ezkontza mota horrek dituen arriskuak (alegia asko, adibidez, haurrentzat idatziak, nekez har dezakete literatura izena).

Azter dezagun orain laburki lehentxeago aipatzen

nuen haur poesiaren alderdi utilitarior hori. Aurrekolako irakasleek sarri haur poesia tradiziozkoa erabiltzen dute maiz zenbait ideia finkatzeko (haur zuzenbideko abestiak, adibide bat jartzearen), baina horrek poesiaren erabilera mertzenario huts izaten jarraitzen du. Hezkuntzaren ikuspuntu utilitariotik ikusita, haur poesia erabilpen goragokoetarako balia dezakegu, hasi oroimenaren heziketa edo musikarako belarriaren heziketa eta buka giza adimenaren gaitasun ez-arrazionalak ziztatzea (irudimena, absurdua, doakoa), tartean umore-gaitasunaren heziketa edo hizkuntzaren hainbat adierazpen-baliabide ezagutzea.

III

Haur ipuinak bezala, haurrentzako poesiak ere tradiziozko jatorri garbia dauka, abestian sendo sustraitua. Haurrentzat, ahozko tradizioak abesti mordska laga digu bereziki haurrentzakoak, igarkizun dezente, aho-korapilo batzuk, jolas formula zenbait, abesti magikoak, metatze-baztertzeak eta abar. Guztira, nahikoa panorama bariatua eskaintzen du eta, izugarri oparoa ez bada ere, abiapuntu nahikoa zehaztu eta zabala da, poeta modernoek kontuan izan dezaten erreferentzia gisa haur poesia modernoak idazteko, tradizioari hari lodiago edo meheagoekin lotua.

Tradizio horrek ez digu bakarrik, lehen ikusi bezala, genero-sail bat utzi, ezpada langintza modu bat, generoan interesa dutenek ezagutu beharre-

koa, beren hobe beharrez: hitzak asmatzea (bai eduki semantiko antzemangarriarekin bat eduki fonetiko hutsarekin, konjurio zahar batean bezala), hizkuntzaz egin daitezkeen jolas amai-gabeak (fonetiko, sintaktiko edo semantikoak), erritmo eta neurriak, absurdu eta funts gabeko esparruan sar-



↪ Hizpide ↪



tzea, debekaturik izan baitu idatzizko tradizio arrazoizaleak.

Material horren guztiaren gaineko ikuspegia eskaini liguke folkloreaken sail honetako edozein literatur bilduma begiztatze hutsak. Har dezagun adibide gisa Joan Amades irakasleak folklore katalanari buruz egindako lan erraldoia. Abesti-bildumako lehen kapituluak osorik dira haur abestiei eskainiak:

Lehena sehaska-kantei eskainia da; ez da haurrek berek erabil dezaten, haiei guraso edo zaintzaile sufrituek baizik; baina abestietako hitzak bai, haur txikienei eskainita daude, baina auskalo zer punturaino ulertu eta jaso ahal izango dituzten.

Bigarrena haur *mimoei* dagokie; hona batzuk, erakusgarri:

*Arri arri tatanet,
que anirem a Sant Benet,
comprarem un pollastret
per dinar, per sopar,
per la Clara no n'hi haurà.*

*

*Violet Sant Pere,
Violet Sant Pau,
la caputxa us queia,
la caputxa us cau.*

*

*Mà morta,
pica la porta,
baixa a obrir,
pega't aquí.*

Hirugarrenean, Amadesek haur abestiak deitzen dituenak datoz: erabilera zehatzik gabekoak dira, baina haurrek edo haurrekin erabiltzekoak. Adibidez:

*Nyigo nyigo nyigo
calces de paper,
totes les musiques
van pel meu carrer.*

*

*A B C,
la pastera ja la sé,
si hi ha pa me'l menjaré,
si hi ha peix faré el mateix,
si el pare m'hi atrapa,
fugiré com una rata,
si la mare no m'hi vol,
fugiré com un cargol.*

*

*Cargol treu banya,
puja la muntanya,
cargol treu vi,
puja al muntanyí.*

Laugarrenean, abesti magikoak, seguru asko gizateriaren historiako garai mitikotik geratutako zantzuak.

Bosgarrenean, haur laneko kantak, nahiz eta «cançons infantils de tasca» izenaren itzulpena okerra izan, haurren gauzak aipatzen baititu, eta ez benetako lanik noski.

Seigarrenean, haur zuzenbideko abestiak. Zazpigarrena, korruan abestekoak.

Zortzigarrenean, baztertze abestiak: hona adibide bat:

↪ Hizpide ↪

*Poma madona,
maixum macau,
xinxota barrota,
castell bimbau,
un, dos, tres,
pany i clau.*

*

*Una rata hi ha al terrat
que té el cul arromangat,
de color de xocolata,
un, dos, tres, quatre.*

*

*Dalt del cotxe n'hi ha una nina
que en repica els cascavells,
trenta quaranta,
l'ametlla amarganta,
pinyol madur,
vés-te'n tu;
si tu te'n vas
nero nero nero;
si tu te'n vas
nero nero nas.*

*Uni dori teri coteri,
mata la veri
veri viron.
Compta'ls bé que tots hi són.*



Eta bederatzigarrenean, jolasetan erabiltzeko bertsoak.


Gero sail orokorragoak datoz, tartean hurrek erabilitako abesti asko noski, batez ere inauteri abestienean eta bat-bateko koplaxoenean.

Joan Amadesen lanaren gainerako aleetan, *Costums i creences* izenekoan adibidez, aurkituko genituzke dudarik gabe hurrek ere erabiliko zuten ahozko poesiaren formak. Esate baterako, enkantamendu-abestiak, edo araoak, eta igarki-zunak.

Laburbilduz, bada, kontuan hartzeko moduko material biltegia dugu: haur poesiako corpus handia berez, baina baita inspirazio iturri agortezina ere.

IV

Erromantizismoak eztanda egin zuelarik, ahozko tradizioarekiko eta haur munduarekiko jakin-min ikasiak bultzatu egiten zuen, batetik, ahoz ahoko material guztia zientifikoki biltzea eta, bestetik, unibertso limurtzaile hura zabaltzeko desioa, haren jarraipena izango zen produkzio berriarekin. XIX. mendearen hasieran, lehendabiziko joerak Grimm anaien ipuin alemanen bilduma izan zuen fruitu entzutetsuena, eta bigarrenak Andersen daniarraren literatur lanean, ahur literaturako bataio ikusgarritzat jo behar duguna. Adibide biok, nahiko berandu izan arren, nahikoa ezagunak eta jarraituak izan dira. Baina, bien bitartean, poesiak ere bi joera berak sortu zituen: Arnim eta Brentano alemaniarrek, XIX. mendearen hasieran hauek ere, *Des Knaben Wunderhorn* argitaratu zuten, tradiziozko poesia bilduma handia, era erromantikoan gutxi gora-be-



↪ Hizpide ↪

hera egokitua; eta, haren etsenpluari jarraiki, gainerako europar kulturak gauza bera egiten hasi ziren (ingelesak, eszentrikoagoa izanik, alemanari ere aurea hartu zion). Guk, muturreko penintsula urrun honetan, Erromantizismoa hain berandu heldurik, eta orduan genuen kultura atzerapenarekin, zain egon beha izan genuen beste puska batean: gure kantutegi esanguratsuenak, ia guztiak XX. mendeko lehen erdikoak dira.

Nola Christian Andersenek, berak erabiltzeko (eta, beraz, guztiok), ipuin-molde bat asmatu zuen ahozko tradizioiko herri ipuinetik eratorria baina genero autonomiaduna, erabat pertsonal eta berezia izatera heldua, halaxe ahozko poesiak ere bere mesias eskatzen zuen, bestaldera eramango zuena. Beharbada titulu ohoretsu hori Edward Lear ingelesak mereziko luke, 1846an bere *The Book of Nonsense* argitaratu baitzuen: lehen aldiz hartzen ditu *nursery rhymes* izenekoak haur poesia berri eta pertsonal bat egiteko ziztagarri gisa. Arazoa zera zen, poesia berez itzultzen zaila izanik, haurrentzako poesia, hitz eta musika jolasez josirik, areago da zaila, halakorik ahal bada. Hala beraz, Andersenek ipuinekin ez bezala, berehala hasi baitziren munduan barrera ibiltzen, Edward Lear-en poemak herrialde ingelesdunetan ia hesiturik. Gaur egun, ingelesaren ezagutza handitu delarik, Lear-ek mugen gainetik jauzi egin eta eskola ere sortu du (Gianni Rodarik, bere *Fantasiaren gramatika* dagoeneko klasikoan, kapitulu oso bat eskaini zion Lear-ek *limerick* idazteko moldeari). Aurrera baino lehen, Lear-i hainbesteko fama eman zioten *limerick* horietako batzuk gogoratu nahi ditut.

*There was an Old Man, on whose nose,
Most birds of the air could repose;
But they all flew away
At the closing of day,
Which relieved that Old Man and his nose.*

*There was an Old Man of New York,
Who murdered himself with a fork;*

*But nobody cried
though he very soon died,-
For that silly Old Man of New York.*

*There was an Old Man of Cape Horn,
Who wished he had never been born;
So he sat on a chair,
Till he died of despair,
That dolorous Man of Cape Horn.*

*There was a Young Lady whose nose,
Was so long that it reached to her toes;
So she hired an Old Lady,
Whose conduct was steady,
To carry that wonderful nose.*

Laster sendotuko zen Lear-en lana Lewis Carroll jekuaren ekarpenekin; bere bi *Alice*-etan eta beste lan batzuetan zenbait poema ahaztezin tartekatuta zituen eta nazioarteko bidea korritu zuten bildurik zihoazen eta garraiatzen zituen ipuinean.

Haur poesiaren generoa, genero idatzi modura, duela oso gutxiko jaiotza dauka, eta oso historia laburra. Hain da horrela, gehiegikeriarik gabe esan daiteke europar kultura asko, gureak kasu, hasi berriak direla. Beste batzuk, berriz, eskandinaviarrak edo eslaviarrak adibidez, anglosaxoiak bezain edo ia bezain aberastu dira. Balantzaren besteko aldean, literatura erromaniko gehienak, aldeak alde, oso atzeratuta dabilta.

Jakina, berba-ahalmenen aurkako garaiak bizi garen arren, edo horrexegatik beharbada, ez da sekula berandu bide horretan lanean hasteko, haurrentzako literatura aberats, anitz eta kalitatezkoa helburu. Tradiziozko biltegi ederra dauka, eta bidegile aritu zaizkigun zenbait idazle on. Baina gure poesietako lehen puntako idazleak haurrentzat idazten helduentzat bezain sarri eta naturaltasun berberarekin hasi arte, oraindik tar-te handia geratzen zaigu bidean.

Poesia eta poetika haurrentzat. Tradizioa eta modernitatea

ANA PELEGRÍN



1. SARRERA

Haurretan entzundako abestiek lehen harreman bat sortzen dute poesiarekiko. Gabriel Zaid izeneko poeta mexikarrak esan ohi du bere poesian eragina duen lehen literatur eskola ahozko tradizioa dela, eta bere sorterri Monterreyko eguzki-argi «itsugarria, ia solidoa».

«Umetan ezin nuen susmatu ere egin idatzizko poesiarik izan zitekeenik; uste nuen eguneroko ahozko ahaztasun errimadun hartan amaitzen zela».¹

Hainbat idatzitan ikertu dut ahozko tradiziozko poesia hori, eta beti azpimarratu dut haurren sentikortasun eta iruditegian (imajinarioan) daukan garrantzia. Hitz entzunaren emozioan, hitz hori dardarkaria eta ukimenezkoa baita beste gorputz batzuekiko kontaktua dagoelako, haurrak bere afektibitatea bideratzen du, hitzen soinu eta esanahiaren analogiak eta ustekabeak aurkitzen ditu, erritmotik abiarazitako elkartzeko libreak egiten ditu, eta horrek hurbildu egiten du haurra irudia eta sinboloa ulertzera.

Irudi eta sinboloak estalian daude ahozko poesian eta, nahiz eta haur zein helduek haren esanahi ezutu eta balioanitzea ulertzen ez badute ere, hunkitu egiten ditu tradiziozko formula poetikoen indar eta iradokitze ahalmenaz.

Tradizio horretan hainbat maila ditugu bata bestearen gainean, hainbat garai, molde eta estilotatik datozenak; zirrinda kronologikoak bereiz daitezke haurrentzako ahozko tradiziozko erreperitorioan.

↪ Hizpide ↪

A. Lirika:

1. Leloak
2. Abestiak

Leloak ⁽¹⁾

1. 1. Zer da lelo bat?

Herri jolasetako koplaxo erritmikoak, neurri irregularrekoak; batzuk XVI-XVIIetan dokumentatuak, A. Sánchez Romeralo irakaslearen hitzetan «esate-modu poetiko bat».

Lelotegietako eta nire ahozko bildumako bertsoak aztertu ondoren, honako definizioak proposatzen ditut leloentzat, esate poetikoaren formulari eutsirik:

a) Ahozko tradizioko haur-oesian, konposizio laburra dugu, sarri elkarrizketa edo enumerazioa dakarrena, haurren ekintza eta mugimendu jolas/errimak laguntzen dituena.

b) Elementu, zenbaki, egoera eszenikoan ezarritako pertsonaia-errenkadak izendatzen dituen konposizioa, lotura logikoa izanik edo gabe, sarritan neurri irregularrekoa.

c) Oro har, haur tradizioko ahozko konposizioak; logikari men egiten ez dion hitza da nagusi, edo errito, jai eta sinesmenei dagozkion formula ahaztuekin lotua.

d) Haur tradizio-lirikan, ahozko testua (hitzezkoa eta keinuen bidezkoa) dugu, normalean errimaduna eta askotan jai-erakoa, askotariko gaiekin: zozketa, hitz magikoak, zentzugabeak, aldrebeskeriak, isekak, aho-korapiloak, prendak ordaintzekoak, ipuin errimatuak.

Leloek funtzio ezberdinak betetzen dituzte, adibidez:

- Haur txikiei gorputz eta hitzezko ikaskuntzarako esaten zaizkienak.
- Taldekideak aukeratzeko zozketa gisa esaten direnak.

1. 2. Gaikako sailkapena

Leloen erabiltzailea (haurrak), funtzioa (ludikoa) eta gaiak kontuan harturik, honako sailkapena proposatzen dut:

A. Eszena-leloa:

1. Haur txikiaren gorputza izendatzeko

Eskuak/gorputza. Ibiltzea. Kili-kiliak. Balantzaka. Zangalatraba.

2. Zozketa egiteko (bartzertzekoak)

Zenbakizkoak. Pertsonaia historikoak, noblelatuak; animaliatxoak. Beste hainbat gai.

2.1. Txin-Txin-Txin, zarramakatin (Gasteiz) ⁽²⁾

Txin txin txin zarramakatin

La madre la coneja perdió

Su sabaneja, sabaneja real.

Pide «pa « la sal, sal menuda

Pide «pa» la cuba, cuba de barro,

Pide «pal» caballo, caballo morisco

Pide «pal» obispo, obispo de Roma

Tapa esa corona

Que no te la vea

La cuca Ramona.

3. Pertsonaiak egoera eszenikoan

Elkarrizketa, erronkak, jazarpenak, eta abar.

3. 1. Zubiri-Zubiri (PASAR EL PUENTE) ⁽²⁾ (Zerain. Gipuzkoa)

Zubiri, zubiri

Nungori nungo

Nungo alkate

Zera zu?

Frantziako jauna,

Erregearen jauna

Seme alabak

Gera gu

Urrien urrena

Pasatzen dena

Emen geldituko dala...

Emen geldituko dala

3.2. *Euskal Herrian, 20ko urteetan bildutako beste adibide bat*⁽²⁾

—A la víbora, víbora del amor;
por aquí podéis pasar.

—Por ahí ya pasaremos,
uña niña dejaremos.

—Esa niña, ¿cuál será?
¿La de adelante o la de atrás?

—La de adelante corre mucho,
La de atrás se quedará.

—Pasimisí, pasimisá,
por la puerta de Alcalá

3.3. *Totorika (Comadrina la rana)* ⁽²⁾

Antzinako jolas jakin batzuetan ere badira elkar-
rizketa errimatuak; jolas horietan, errezitazioa
amaitu orduko neskatilek jauzi egiten zuten, bira,
eta kokoriko jartzen ziren azken bertsoleerroaren
ariora. Jolas horri «totorika» esaten omen zioten
Baztanen.

Andoainen ba omen zen neskatilen jolas bat:
haurrak bildurik, honako elkarriketa izaten zu-
ten, batzuk galdezka eta besteak erantzunez:

—Aizan, Maria Goiko!

—Zer bihar, Maria Beko?

—Goazeman iturrira!

—Etzeukanat betik.

—Ze egin zan, ba?

—Senarra etorri.

—Ze ekarri?

—Zapata ta galtzerdi.

—Ze kolore?

—Zuria ta gorria ta kikirriki.

—Ta Besterik ezer?

—Lakari bat zorri eta gaitzeru bat arkakuso.

—Aizan! Ire senarra ta nere senarra asarretu
omen ditun.

—Zeren gaintetik?

—Iriak dizkin kulpak... Iriak dizkin kulpak...

—Iriak dizkin kulpak... Iriak dizkin kulpak...

4. **Magikoak, eskeak, konjurioak**
Solaskide erreal, bizigabe edo sin-
bolikoei zuzenduak.



4.1. *Ya vienen las monjas (Araba)* ⁽²⁾

A la paciyerba,
que viene la culebra;
al paciyerbón,
que viene el culebrón.
Ha dicho la culebra
Que pongas buena cena
Para hoy y mañana
Y toda la semana.
Que vienen las monjas
Cargadas de rosas,
Que no pueden pasar
Por el río de Aguilar.
Que pase una,
Que pasen dos,
Que pase la Madre
Y el Hijo de Dios.
Que pase el burro blanco,
Que relumbra todo el campo;
Que pase el burro negro,
Que relumbra todo el cielo.





4. 2. *Mariquita*⁽²⁾

Maria gona-gorri,
Bihar eguzki ala euri?
Euria baldin bada,
Kutxatilan gorde,
Eguzkia baldin bada,
Infernuan erre
(Andoain)

Mari gorringo, zuri gorringo,
Eguraldi txarra egiten badezu,
Labe gorrian sartuko;
Eguraldi ederra egiten badezu,
Kutxa ederrean gordeko.
(Arroa)

5. *Isekak*

Trufak: erlijio, lanbide edo izenei buruzkoak

6. *Prendak eta esakuneak*

7. *Aldrebeskeriak*

7.1. *Aho-korapiloak*

Hotsari erreparaturik aukeratutako hitzak, esanahirik gabeak

B. Ipuin-leloa:

1. *Laburrenak*

2. *Amaibakoak*

3. *Metatzekoak:*

3.1. *Zerrenda erakoak*

3.2. *Kateatze erakoak*

3.2.1. *¿Dónde están...?*⁽²⁾

—¿Qué entró por aquí?

—Un ratón.

—¿Qué comió?

—Un quesón.

—¿Qué dejó?

—Unas miguitas.

—¿Dónde están las miguitas?

—Las gallinas las comieron.

—¿Dónde están las gallinas?

—A poner huevos fueron.

—¿Dónde están los huevos?

—Los frailes los comieron

—¿Dónde están los frailes?

—A dar misas al convento.

—¿Dónde está el convento?

—El fuego lo quemó

—¿Dónde está el fuego?

—El agua lo apagó

—¿dónde está el agua?

—Los toros la bebieron

—¿dónde están los toros?

—A correr a monte fueron.

—¿Dónde está el monte?

—Las vacas lo pacieron.

—¿Dónde están las vacas?

—A dar leche fueron.

—¿Dónde está la leche?

3.2.2. *(¿Dónde están...?) Arizkun*⁽²⁾

—Kikiriki!

—Zer dezu ollarra?

—Axezikok yan dut

—Axeziko non da?

—Saspian

—Sasia non da?



- Suek erre
- Sue non da?
- Urek itzali
- Ure non da?
- Beiek edan
- Beie non da?
- Landan
- Landan ze ai da?
- Arto eriten
- Artua zertako da?
- Olluandeko
- Ollua zertako da
- Arroltze iteko
- Arroltza zertako da?
- Apezaindako
- Apeza zertako da?
- Gure arima salbatzeko.

3.2.3. (EL GATO AL RATÓN) ⁽²⁾

Erioa or eldu da
 Gizonaren iltzera;
 Erioak gizona,
 Gizonak katua,
 Katuak sagua,
 Saguak soka,
 Sokak idia,
 Idiak ura,
 Urak sua,
 Suak makila,
 Makilak zakurra,
 Zakurrak otsua,
 Otsuak akerra,
 Akerrak ken, ken ken
 Akerra gure artuan zen.

2. ABESTIAK:

2.1. XV. mendean aipaturiko testu estrofikoak –distikoak, kopak, seguidilla izenekoak–, ahozko errepertorio garaikideari dagozkionak.

2.2. XVIII-XIX mendeetan egokitutako gaiak, adibidez «Madre a la puerta hay un niño / más her-

moso que el sol bello» eta «*La torre en guardia / la vengo a destruir*» hasten diren abesti narrazioak.

2.3. XIX mendeko eta XX. mende hasierako abesti herrikoiak, haurrek bereak balira bezala kantatzen dituztenak («*El cocherito leré*», «*El puente de Bilbao*», «*De colores se visten los campos*»).

B. Erromantze-bildumetan:

1. Ahozko haur-erromantzeen errepertorioa osatzen duten poemak, eta abesti narratiboak.

1.1. Erromantze-bilduma zaharretatik datozenak (Conde Niño, Santa Catalina).

SANTA CATALINA

*Allí arribita arribita- en los Arcos de Navarra , y así!
 En los arcos de Navarra.*

*Mandó haser una rueda- dé cuchillos y navajas y así!
 Cátaliná se llamaba.*

*Todos los días de fiesta- sú padre la castigaba y así!
 Su padre la castigaba.*

*Sú padre como era moro- sú madre una rabiada y así!
 Su madre una rabiada.*

*Mandó haser una rueda- de cuchillos y navajas, y así!
 Dé cuchillos y navajas.*

No recuerdo más de ella, tal como nosotros la salmodiábamos.

¡Qué encanto atesoran esos temas seculares y universales de los cantos de corro de los niños! Transmítense, como los cuentos infantiles, de generación en generación de niños, sin intromisión de mayores, en la corriente del verdadero y hondo progreso social. Como se aprenden y se enseñan antes de saber leer y escribir, representan la verdadera tradición, la fundamental, la anterior al arte de la escritura, esa tradición que el documento nos impide comprender y sentir Y esa tradición primitiva e infantil se transmite más fielmente que la escrita. Cambian más los escritos al pasar de copista a copista o de escritor a

escritor que los relatos orales al pasar de boca en boca. No hay copistas que la corrompan ni cristalicen. Los poemas homéricos ¿no empezaron a estropear así que por la escritura fueron fijados?⁽³⁾

1.2. *Berria edo «arrunta» deitutako erromantze-bilduma ahozkotik (Monjita a la fuerza; Hijas de Merino + Tórtola del peral).*

HIJAS DE MERINO (Málaga) ⁽¹⁾

¿Madre quiere usted que vaya un ratito a la Alameda con los hijos de Marina que llevan rica merienda?

Acabá de merendar, se perdió la más pequeña.

Su madre la va buscando calle arriba calle abajo

¿dónde la vino a encontrar? En una casa metida

Con un niño de quince años que estas palabras decía:

Contigo me he de casar, si no me quito la vida.

—¿Mi papá tenía un peral cargado de peras finas

en el último ramal se para una golondrina

con el pico echaba sangre con la cola decía:

—¿Mal haya sean las mujeres que de los hombres se fían!

A los niños de la rueda

Caramelos y peladillas.

(TORTOLA DEL PERAL)

MI ABUELA TIENE UN PERAL ⁽¹⁾

Mi abuela tiene un peral

que cría peras muy finas

Y en la ramita más alta

se cría una golondrina

(Agurain)

Allon errepikatu egiten dira bertsoleerro bikoi-tiak, eta ahapaldi bakoitza neskaitila-ilara batek kantatzen du:

Mi abuela tiene un peral

Que echa las peritas finas

De la ramita más alta

Se cayó una golondrina.

Por el pico echaba sangre

Y por las alas decía

Qué tontas son las mujeres

Que de los hombres se fían.

A las chicas de este pueblo

les vamos a regalar

una fuente de natillas

con la Virgen del Pilar.

Y a los chicos de este pueblo

Les vamos a regalar;

Un puchero de alubias

Con el diablo Satanás.

1.3. *Abesti narratiboak: En coche va una niña; Estaba la pastora; Tres alpinos.*

2. Poetika ahozkoa: hizkera tradiziozkoa

2.1. Sarrera:

Hizkera tradizionalak bere *norma* poetikoa dauka, estilo batez hornitzen du lirika: irudi, formula, motiboak errepikatu egiten dira, eta sare bat osatu, egitura bat, alegia, **programa sinboliko bat**.

Motiboak *literatur eta kultur topikoen arlokoak dira, ahozko literaturan sortuak. Motiboak formulak dira, kondentsatze-egoeran, narrazioko gutxieneko unitate sinbolikoak. Halako esparru zabala ezin garatu, eta sare sinbolikoko motibo batzuk iradokitzen ditut:*

1. Ura, iturria: maitaleen biltokia

Arroyo claro

Fuente serena

quién te lava el pañuelo

saber quisiera

(Almería)

2. Zuhaitza: bizitza, babesa. Erramua: maitasun, poesiaren sinboloa:

Estaba la Catalina

sentada bajo un laurel

Con los pies en la frescura

viendo las aguas correr.

(Córdoba. Argentina)

3. Usapala eta usoa; txori berdea; erresinula: sinbolo femenino-maskulinoak, maite-enkontruaren protagonista bikoitiak:

*Del tronco nace la rama
de la rama nace la hoja
y del centro de ella nace
un clavel que se deshoja.
Yo vide un pájaro verde
bañarse en agua de rosas
y en el pico llevaba
un clavel que se deshoja.
(Jujuy – Argentina)*

4. Txori zaurituak: maitasunaren zauria.

*En la huerto de mi padre
un peral de peras finas
en la rama mas alta
hay una tortolica herida,
por las alas echaba sangre
por el pico decía
¡Mal haya sean las mujeres
que de los hombres se fían!
(Córdoba. España)*

5. Dontzeila

ile-hutsik eta urrezko orrazia duela, itsas-lamiaren Erdi Aroko ikonografiarekin lotu izan da: urrezko adatsa txirikordatzen eta ispilua eskuan, maitasunari irekitako bizitza da haren esanahietako bat.

*Arboleras, arboleras
arboleras tan gentil
la raíz tiene de oro
la simiente de marfil.
En la ramica mas alta
hay una dama gentil
peinando los sus cabellos
con un peine de marfil
(Tradición sefardi. Esmirna)*

2.2. Tradizioa eta sorkuntza

Haurtzaroaren memoria biziarekin lotura zuzena bilatzen duten poetek atzera begiratu, eta kantutegi herrikoia materialera jotzen dute, poesia berezi baten, ahozko haur tradizioaren poetika baten iturri gisara.

«... Poesiaren sustrai bizietako bat da –esan zuen Gabriel Celayak– eta ez da izan benetako poetarik, haren liluraz axolagabe izan denik».


Beharbada oroimena pizteko indar horrek eraman zuen Gabriel Celaya abestiak biltzera:

La voz de los niños (1972, «Haurren ahotsa»).
«Sekretu galdu bat» gogoratzen dute abestiek, baina isilpeko hori ez da erraz azaltzen.

«Gure garaiko poesiak –gehitu zuen Celayak–, irrazionalismoz blaitua, baita nahitako infantilismo batez ere, [haur kantutegiak] balioesten irakatsi digu.»

Celayak balioetsi egiten zuen ahozko haur poesia, haurren ahotsa entzunez, bere haurtzaroko ahotsa entzunez, emoziotik abiatuturik, bai kantutegian bai abangoardietan presente dagoen irrazionalismoaren garrantzi poetikoa. «Sekretu galdua» zatika bada ere desestali daiteke, ahozko tradizioko poesiaren itxurazko aldrebeskeria, zentzugabekeria eta «nonsense» askoren jatorria ahaztutako sinesmen, errito, jai eta formula poetikoe-tan baitago. Pipirigallo inauteri-garaiaren aipamena da, «Obispillo-aren» jaia hala baita.





PIPIRIGALLO (Obanos) ⁽²⁾
Pinche pinche gallo
La madre la cuquiña
Fue a por sal
Sal menuda para la cuba
Cuba de gallo para el caballo
Caballo morisco
Tira coces al obispo
Obispo de Roma
Cruz y corona
Para que te acuerdes de mí, toma.

2.3. Haurtzaroa: poetak eta memoria

Irakurle haur zein gazteentzako idazkera poetikoa, irakurle sentikor **ororentzako** literatura da. Poetaren eta haurren arteko harremana, zertzelada eta elkarlotura aniztasun ugarian labaintzen da.

Idazkera poetikoan, «ni» poetikoa haurtzarorekin lotzen da, hainbat ikuspegitik, eta zenbait kasutan bata bestearen gain jarritakoak; poetarengan hainbat graduazio antzematen dugu, haur izatearen aurrean:

2.3.1. Poeta bere haurtzaroaz mintzo

Gertu dauka oraindik haurtzaroa, idazkera artistakumearena baitu. Poetak hurrekin hitz egiten du, bere haur gertu-gertuko horrekin. Balada de la Placeta lanean, García Lorcak galde egiten die kantuan ari diren hurrei poetaren bidez, baina galdera bere baitako «ni» sakonera zuzendua dago. «Zuek bezala kantatu nuen nik», dio, bere burua sokako beste haurtzat joaz.

Albertik, bere *Marinero en Tierra* argitsuan, Cádiz-eko argia gogoratzen du, bere haurtzaroko argia, izaki txikien ondoan:

«Infancia mía en el jardín / las cochinillas de humedad las mariquitas de San Antón / también vagaba la lombriz... y patinaba el caracol; ¡Infancia mía en el jardín!».

2.3.2. Poeta haurtzaroari mintzo

Idazkeran haurren arima antigoalekoari eutsirik, hau da, eraikuntza sinboliko eta mitikotik abiaturiko mundu-ikuskerak. Eraikuntza eta azalpen magiko horrek –Piaget psikologoak azaldu zuen haurtzaroan gertatzen sen sinboloaren sor-kuntza eta garapenari buruzko bere teorian– iraupen elkarriketa bat ezartzen du sortzailearen eta haurraren artean.

Bien bulkada bete-betea eta bizi-bizia da, bulkada ludikoa, poz eta dinamismoaz bat egitekoa, bizitzarekiko maitasun-sinbiosian.

Horixe da García Lorcaren bulkada, mundua magikoki antzematean, eta haren begiradaren abiapuntu **ikusteko** bidea ematen zion ispilu miragarrian zegoen: «*vi un hada relumbrante como un ojo de perdiz*».

Soka sentikorren –argitasun-biolin bat– afinatze-egoera batetik sortutako bulkada da, eta poetak egoera horretan eraikitzen du **haurrerekiko** elkarriketa. Poema eta abestiak, Lorcak ulertzen zituen erara «... *de sorpresa para muchos y de alegría para pocos*».



J. Guillén bere adiskideari idatzitako gutun batean aitortzen duenez, pozaldi horretan sortzen du haurrekiko elkarrizketa, poetaren seme-alabekiko:

«*A Teresita le dedico la Canción del lagarto y la lagarta, porque se reirá bastante de verlos llorar (¡los pobres!)*».

Canciones (1921-1923) liburuan, Lorcak haurrekiko elkarrizketa poetikoa abiarazten du berriaz, liburuko atal bat haiei eskainiz.

2.3.1.1. Norbere haurtzarora itzultzea

Haurtzaro hondatuetatik, zoritxarretik, norbere burua berriz aurkitzeko, norbere bizia berpizteko, atalasetik...

Haurtzaro erdiragarritik, Blas de Otero poetak zera dio, ikaraturik:

«*Yo recuerdo la niñez como un cadáver de niño junto a la orilla*».

«*Un niño acaso un niño, está mirándome el pecho de cristal*».

Hauskortasun bakan horretan, oihartzun dardaratsu horretan, Antonio Machadok bere azken testamentua idatzi zuen, heriotza-haurtzaro erronka hori isuririk:

«*Estos días azules, este sol de la infancia*».

Ilunbe eta heriotza aieru misteriozkoa, Lorcaren haur abestietan irakur daiteke, esate baterako, Canción de las palomas oscuras misteriozkoa. Heriotzaren eta haurraren motibo agoniakoa behin eta berriz itzultzen dira, leit motif gisara, zenbaitetan aieru ikaragarri gisara, García Lorcaren poesian, «*Infancia y muerte*» izeneko poeman irakurtzen dugun bezala:

«*Para buscar mi infancia ¡Dios mío! / comí naranjas podridas, papeles viejos, palomares vacíos / y encontré mi cuerpo comido por las ratas / en el fon-*

do del aljibe y con la cabellera de los locos».

2.3.1.2. Itzulera: haurtzarora negar-eresian

Gaia hil-eresia bihurtzen da, galeraren inguruko gogoeta, idazkeraren gogoratze-ahalmene-tik abiatuta. Haurtzaroko oroitzapenek era poetikoa blaitzen dituzte hainbat orrialde go-goangarri, Luis Cernudaren *Ocnos* eta *Recuerdos mexicanos* liburueta hitz lauzko poemetan.

Liburu ederra, zinez, haurtzaroaren negar-eresia hizlari lirikoan, Antonio Colinas poeta leondarrak atera berri duena: haren izenburuak (*El crujido de la luz*) molde liriko iragartzen du.

Antonio Colinasek berak azaltzen zidanez, Leonen emandako haurtzaroko paisaia, elur eta argizko irudi horiek bere idazkera poetikoaren metafora dira.


Entzun dezagun argiaren taupada:

«*En realidad, la esencia de aquella mañana pura de la infancia no era la nieve, sino el crujido de los pasos del médico sobre la nieve. Más adelante habría de haber en la vida de Jano otras luces –luces fogosas, luces de oro, luces blancas y espesas, luces verdosas o hasta temibles luces negras–, pero la esencia de su vida estaba en ese crujido de la luz blanca de la nieve.*

Era aquel rumor fresco y distinto como la prueba de la vida que él iba a iniciar, como el rumor y la lucha del ser frente a aquel clamor silencioso –sí, clamor del silencio que se dejaba oír–, de la nieve».

Abestiak ere bai, Leongo poetak umetan entzundako abestiak:

«*En Sevilla hay una torre y en la torre una ventana, y en la ventana una niña que se miraba en el agua.*



Testua oso zen soila –dio Colinasek–, eta hiri jakin bat aipatzen zuen gainera, baina berak sinboloak irakurtzen zuen bakarrik: dorrea, leihoa, neskabila eta, batez ere, ura. Lau sinbolo horiek intentsitate dirdaitsua bereganatzen zuten bere irudiko, kolore eta lurrin bizi-biziak, eta mugimenduan bezala jartzen ziren. Ura, batez ere, sakona zen, eta berdekara, ia beltza. Dorreko neskatilak sortzen zizkion sentipenak mundu honetakoak, behintzat, ez ziren. Beharbada, abestiak aipatzen zuen neskabila hura ere mundu honetako ez zelako. Aingeru bat zen, eta, hark bai, hegoak zituen altxa egin eta ametsetako dorre handira igotzeko. ¿Edo neskabila hila ote zen?²

Bai hegaldiaren gaia, bai neskabila lokartuaren ametsarena, bai argi eta itzal: bi errealiteren bitarteko neskatilarena, irudi sinbolikoak dira hala poesia tradiziozkoan, nola poesia garaikidean.

Hurtzaroa eta haren sinboloa liluratzegai iraunkor dira sortzaileentzat. Bachelard-ek dio «hurtzarook arketipo balioak» dituela. Hurtzarook, bere umezaroa oroitzeak, irudiz hornitzen du sortzailea, batetik hurtzaroko sentimendu eta bizipenen eta bestetik heldua izanik sortutakoaren arteko loturak ulertzeko.

«Haurtasun tentsio handia behar du gure iza-tearen hondoan, poeta baten [hitzek eta] irudiek, bat-batean, gure oroitzapenak gogorarazten baitizkigute, eta gure irudiak ber-irudikarazten. Poetak itzarri egiten du gure baitan hurtzaroa, hurtzarooan izandako kosmikotasunaren nozioa eta sentimendua».³

Howard Gardner-ek, hezkuntzari buruzko ikertzaile eta teorikoak, izaera sortzailearen garapena ikertzen du; XX. mendeko sortzaile handien biografiak kontuan izanik, zera dio: beti agertzen den elementua da emozio-bideekin eta sinbolo eta hitzekin izandako harreman sakona, horiek loturak baitituzte pertzepzio-sarearekin, hurtzarooaren munduko sinbolo zahar eta iraunkorren sarearekin⁴. Nire gogoeta Lorcaren



hitz poetikoan oinarritzen dut, bere dimentsio sortzailean finkatu baitzen, haur mundu poetikoa, haurtzaroaren poetika bat asmatzean, XX. mendeko literaturan.

Hiru modu antzeman ditzaket poetarengan, 1918-1932 garaian bere poesiaz eginiko bilaketan, haurtzaroaren poetika horren eraikuntzaren ikuspegitik:

1. Poeta nerabeak hauraren eta poetaren be-larria eta begirada birsortzen ditu.
2. Irudi zaharberrituen sortzailea, eta poesia puruaren bilaketa.
3. Antzinako sinboloen presentzia, misterioa eta aieruak.

2.4. Poeta nerabea

Lehendabiziko urteetan doinu malenkonia-tsu, ameslari batetik itzurtzen zaizkio ipuinak, abestiak, jolasak, elezaharrak, haurtzaroko urteei eusteko beharrari erantzunez.

Badaki arima antigoalekoaren bila ari dela, mito eta sinbolo zaharrez blaitutakoaren bila:

*«Y yo me iré muy lejos / mas allá de esas sierras
más allá de los mares / cerca de las estrellas
para pedirle a Cristo / Señor que me devuelva
mi alma antigua de niño / madura de leyendas
con el gorro de plumas / y el sable de madera.»*

Libro de poemas (1921) izeneko liburuan, «San-tiago. Balada ingenua» (1918), «Balada triste. Pequeño poema» (1918), «Balada de la placeta» (1919) eta «Balada de un día de julio» (1919) izenburukoetan belaunaldi lirikoaren maisu zen Juan Ramón Jiménez-en doinu elegiakoari eusten dio.

BALADA TRISTE

PEQUEÑO POEMA 1918

*¡Mi corazón es una mariposa,
niños buenos del prado!,
que presa por la araña gris del tiempo
tiene el polen fatal del desengaño.*


*De niño yo canté como vosotros,
Niños buenos del prado,
Solté mi gavilán con las temibles
Cuatro uñas de gato.
Pasé por el jardín de Cartagena
La verbena invocando
Y perdí la sortija de mi dicha
Al pasar el arroyo imaginario.*

*Fui también caballero
Una tarde fresquita de mayo.
Ella era entonces para mí el enigma,
Estrella azul sobre mi pecho intacto.
Cabalgué lentamente hacia los cielos.
Era un domingo de pipirigallo.
Y ví que en vez de rosas y claveles
Ella tronchaba lirios con sus manos.*

*Yo siempre fui intranquilo,
Niños buenos del prado,
El ella del romance me sumía
En ensoñadores claros.*

*¿Quién será la que coge los claveles
y las rosas de mayo?
¿Y por qué la verán sólo los niños
a lomos de Pegaso?
¿Será esa misma la que en los rondones
con tristeza llamamos
estrella, suplicándole que salga
a danzar por el campo?...*

*En abril de mi infancia yo cantaba,
Niños buenos del prado,
La Ella impenetrable del romance
Donde sale Pegaso.
Yo decía en las noches la tristeza
de mi amor ignorado y la luna lunera, ¡Qué
sonrisa
ponía entre los labios!
¿Quién será la que corta los claveles
y las rosas de mayo?
Y de aquella chiquita, tan bonita,*



*Que su madre ha casado
¿en qué oculto rincón de cementerio
dormirá su fracaso?*

*Yo solo con mi amor desconocido,
Sin corazón, sin llantos,
Hacia el techo imposible de los cielos
Con un gran sol por báculo.*

*¡Qué tristeza tan seria me da sombra!,
niños buenos del prado,
cómo recuerda dulce el corazón
los días ya lejanos...*

*¿Quién será la que corta los claveles
y las rosas de mayo?*

Federico García Lorca
Libro de poemas.

Lorcaren lehen liburua, poetaren hitzetan, zera da:

*«La imagen exacta de mis días de adolescencia,
esos días que enlazan el instante de hoy con mi misma infancia reciente».*

(Prólogo Libro de poemas 1921)

Lorca hasi zen bere haurtzaroaren poetika –eta poesia– bere sorkuntza-lanaren sinbolotzat, eta gero behin eta berriz agertuko diren gaiak ageri dira: urrunekoa misterio gisa; mito, sinbolo, elezahar eta ametsez zamaturiko arima antigoalekoa; Natura eta bere izaki ttikiak, eta heriotzaren sasadak. Poema laburretan, balada xaloetan, enparantzako abestian, umetako sentipenak erabiltzen ditu; urari, iturriari, argi, eguzki eta ilargi eta izarrari lotutako sentipenak, «ni» lirikoaren emozioei buruzko galdekizun etengabeak.

4.2.5. Irudi zaharberrituen sortzailea

Gai errepikatu horiekin loturik, Lorca «kondentsazio poetiko» delako bat hasi zen, estanpa txikietan, kromo idatzietan (haurrentzat, espreski dedikaturik gertuko haurrei: bere arreba, bere iloba, poeta adiskideen seme-alabak, eta bere haur lirikoa.

Hiru adibide hartuko ditut, poeta haurra asmatzeko une honen azalpen modura: «*Canción de los lagartos*», «*Cancioncilla sevillana*» eta «*Canción tonta*».

Canción de los lagartos a Teresita Guillén

EL LAGARTO ESTA LLORANDO

El lagarto está llorando.

La lagarta está llorando.

El lagarto y la lagarta

Con delantalitos blancos.

Han perdido sin querer

Su anillo de desposados.

¡Ay, su anillito de plomo,

ay su anillito plomado!

Un cielo grande y sin gente

Monta en su globo a los pájaros.

El sol, capitán redondo,

Lleva un chaleco de raso.



*¡Miradlos qué viejos son!
¡qué viejos son los lagartos!
¡Ay cómo lloran y lloran!
¡ay!, ¡ay!, ¡cómo están llorando!*

Musker zahar bikote maitemindu baten zori-txarra kontatzen duen istorio laburra. Bertsole-
rro biko zortzi ahapalditan dago egituratua; isto-
rio bat berde-zuriz margotua, eguzki-horiz mar-
gotua, urdin-beltzez margotua. Loturik dago «*Ale-
luia*» izeneko istorio herrikoiekin, istorio errima-
tu eta margotu haiekin. 27ko belaunaldiko poeta
gazteek bozkarioz hartu zituzten *Aleluiak*. Eraz-
tun galdua, tradiziozko sustrai antzinakoa, beste
abesti batzuetan agertuko den motibo-sinboloa
da («*Escena*» eta «*Desponsorios*»).

Cancioncilla sevillana, a Solita Salinas

CANCIONCILLA SEVILLANA

Amanecía

En el naranjel.

Abejitas de oro

Buscaban la miel.

¿Dónde estará la miel?

Está en la flor azul;

Isabel.

En la flor,

De romero aquel.

(Sillita de oro

para el moro.

Sillita de oropel

Para su mujer).

Amanecía

en el naranjel.

«Ekarritako» kultura antzinako horren beste
adibide bat dugu ahozko haur tradizioaren altxo-
rretik bir-sortutako ahapaldietan:

«La sillita de oro, el coche de oro / para el moro».

Idatzizko tradizio kultuaren testu-
arteko aipamen bat, Góngora etorki:

Las flores del romero

Niña Isabel

Hoy son flores azules,

Mañana serán miel.

Egiturak udaberri-estampa batean biltzen du
argi-distira bat urrezko erlez jositako belargune
txikian. Elkarrizketa labor-laburra neskatilaren eta
poetaren artean. Non izango ote da ezitia?

Bizkortasun urduri eta azkarreko eszena, argi
eta distira graduazio batez (egunenti argia, laran-
ja, urrea, ezitia, farfaila), pintzelkada berde-urdi-
nez ziprztindua (erromeroaren hostoak, lore ur-
dina).

Canción tonta

I

Sí

No.

¿Quién te quiere?

¡Yo!

¿Si?

¡No!

II

Mamá.

Yo quiero ser de plata.

Hijo,

Tendrás mucho frío.

Mamá.

Yo quiero ser de agua.


Hijo, tendrás mucho frío.

Mamá.

Bórdame en tu almohada.

¡Eso sí!

¡Ahora mismo!



III

*Los borriquitos están volando.
Sus sombras van por los tejados.*

*Los peces vienen de paseo
Con bastones y sombreros.*

*El director de la música
Se enamoró de la luna.*

*¿Dónde estarán desde ayer
las tres niñas de marqués?*

*¡Pisa la raya de la rayuela!
¡coge la flor de su cabeza!*

Kurioski, abesti hau ez dago haur bati dedikatua. Ez ote? Nire iradokizuna da Lorcak

«*Canción tonta*» izeneko hau haur berezi horri eskaini ziola, bere «ni» haur lirikoari: tontakeriari eustea, «lelo hutsen» hitzei eustea.

Eszena txiki, intimo batean, haurraren eta amaren arteko elkarrizketa labur-laburra: harrak mundua eta bere sentimenduak aztertzen ditu, amaren maitasuna probatzen du, urezkoa, zilarrrezkoa izan nahi duela imajinatzen du. Amak gogotik kentzen dizkio «irudi hotz» horiek, bere ama-bihotzak haurraren bihotzeko dardara suma-

tzen baitu, eta zabaldu egiten du, amaiera samur horretan, zikingabearen intentsitate horrekin.

*«Mamá / bórdame en tu almohada
¡Eso sí / ahora mismo!».*

Irudia eta umorea. Haurrak, poetak, lelo hutsak

20ko urteetako abangoardiek, neopopularismoaren eta irudi-nagusitasunaren artean, ultraismoaren proposamenean gune poetiko gisa, absurduaren oihartzun eta errainuak hartu zituzten, lengoaiaren eta umorearen hitz-jolasak jai-askatasunean.

Jolas eta trufa, poesiaren nahasketa ludiko batean, parodia eta aldrebeskeria errimadunak, Lorcak eta Residencia de Estudiantes-eko gazteek asmatuak: «anaglifoak» eta Gerardo Diego «jino-jepak».

Parodiak eta izpiritu libreak bultzatu zuten Lorca bertsoerri «modelnoak» idaztera, hala nola bere Romancero gitano liburuko erromantze bur-latsuan.

*Por el camino yacente
Vienen cuatro bandoleros:
Luis Martínez, Juan Rodríguez,
Cabezas de lacre ardiendo.
Los otros dos en la sombra,
Sombra de nardo y acero
Sombra que sombra y resombra
Sombra de montes en pelos.⁵*

Poeta jolasean aritzen da, burlaizean, «*Romance Sonámbulo*»: *Verde que te quiero verde* hura misterioz betetzen duen errepikapenarekin. Sei aldiz errepikatutako «sombra» hori, mendiak «*en pelo*» amaitu gainera, eta lakrezko buruak sutan, hori irudia; edo, ezohiko, errepikaezinezko bertsole-rrook:

*Mientras los mares relinchan
Y se afeitan los luceros.*



Lorcak haurrei, poetei eta leloei pribilegioa ematen die gauza puruetara hurbiltzeko. Adiskideei zuzendutako gutun batean, Lorcak onartu egiten du bila segitu beharra, «hain beharra zai-gun artearen gauza puruen» bila. Bilakuntza hori bizipozak bultzatzen du, hitz-joko eta jolasetan, harridura eta ustekabe artean, aldrebeskeriak egiteak ematen duen alaitasunak.

Zinemak ere elikatzen du ustekabetasun hori. Umorea garaiko komiko handien, tonto handien film mutuetan heldu zen zinemara: Chaplin, Buster Keaton (Lorcak gogoratu zuen bere «*El paseo de Búster Keaton*», eta Rafael Albertik bere «*Búster Keaton busca por el bosque a su novia, que es una vaca*» poemetan.

Residencia de Estudiantes-en garai alai eta bizibizietan, bizipozak gainezka egin zuen, zirko, zinema, joko, gauza herrikoien zaletasunekin batera, horiek baitziren literatura berriaren gai gustukoenak. Morris hispanistak komiko estatubatuarrek sortzaile gazteengan izan zuten eragina aipatzen du:

«Komiko hauek pantailara eramán zutena, eta haien zaleek berriz literaturara, abiadura izan zen, irudimena, bai eta jardute apetatsu eta lotugabea».⁶

Zinemak eta umoreak ere haur kulturaren parte dira. Haurrek, poetek eta leloek batera duten eszenategi bat da. Albertik eta Lorcak zine eta umore elkarrizketa birsortzen dute, bere poemetan berriz asmatzean. Lorcak «*Canción tonta*», «*El pájaro Grifón*» eta «*Voz de pueblo*» poemetan egiten dituen jolas poetikoak; eta Albertik bere «*El tonto de Rafael*», «*Búster Keaton busca por el bosque a su novia que es una verdadera vaca*» eta «*El pregón de Pípirigallo*» poemetan egiten dituenak, poetek, haurrek eta komikoek elkarrekin banatutako eszena batekoak dira. Ohar gaitezen umorea, absurdua, aldrebeskeria, gai iraunkorra dela gaur eguneko haur poesian.

Poema Charlotten amaren omenez
(*Poema homenaje a la madre de Charlot*)

Lorcaren 1928ko poema labur batean, Charlotten artearekiko mira eguneroko objektuetara bideratzen da: galtzerdia, botila, bizikleta, zine-kameraren objektiboa, hilkutxa harrigarri bihurtuta, Charlotten amaren hiletako segizioan. Tradiziozko leloetako beste segizio batzuk birziklatu/berpiztu egiten ditu poemak, burlaizean:

*San Isidro Labrador
muerto lo llevan en un cajón
el cajón era de pino
muerto lo llevan en un pepino.*

Lorcaren eskuizkribuen artetik berreskuraturik, poema Madrileko prentsan agertu zen, «*Fundación García Lorca*» erakundearen artikulua batean.⁷

*Voz del Pueblo
Que se ha muerto la madre de Charles Chaplin
muerta la llevan en un calcetín.
El calcetín era de Pío Nono,
muerta la llevan en una botella de anís del mono.
La botella era de Enriqueta
muerta la llevan en bicicleta.
La bicicleta era de Manolito
muerta la llevan en un gambusito.
El gambusito era de un chivo
muerta la llevan en un objetivo.
El objetivo era de chaplin
muerta la llevan rueda sin fin.*

Lelo zahar eta berri arteko nahasketa, ternezia eta komikotasuna, clownaren xalotasun eta trufa, balantzaka ezkutuko minaren eta ikusleei komunikatzen dien irriaren artean, heriotzaren do luaren eta zinema-begiaren artean –Chaplinen kamerako objektiboa–. Omenaldi txiki bat Chaplinen arteari, publikoarentzat gurpil amaigabea baita.



Antzinako sinboloak. Urrunekoa eta misterioa. Ura sakon den lekuan

Las Nanas infantiles edo *Canciones de cuna españolas* hitzaldietan (1928) Lorcak gogoeta egiten du poetaren intuizio sortzailearen inguruan eta haurren ahaldunen sortzailea. Bereizi egiten ditu «iruzur poetikoa eta sormen-lan poetikoa», poesian fantasiaren eta irudizkoaren konkrezioaren arteko bereizkuntza ezarriz. du.

Irudizkoaren, intuizioaren esparrua berriz mendean hartzeko, beharrezkoa da «poetak eta lelo hutsak baizik ez duten fede errotuz» hitz egitea.

Ulermena logika poetikoari dagokio, beste adimen eta pentsamendu bat da: arrazoiz gainerako egoeratan sortu eta hazten da, bide ematen dio «gauza eta objektuen artean misteriozko loturak» eta analogiak ezartzen dituen intuizioari. Poetak federik baldin badu misterioan, «gauza puruen» lokarri ikusezinari eusten diolako da, poeta/haurren bategitea sortzen du, «lehengai poetikoaren giltzarri esanezina» entzuten baitute.

Haurtzaroko munduaren ikuspegi horrek lotura du 20 eta 30eko urteetan egiten zen haur sortzailearen proposamenarekin, subkontzientea eta ametsak, haurtzaroko psikologia eta sinboloraketa aztertzeko ikerketekin.

Claudio Guillén, Sevillako bost urteko haurrari eskainia, *Canción o Casida de las palomas oscuras*.

CASIDA DE LAS PALOMAS OSCURAS

*Por las ramas del laurel
Vi dos palomas oscuras.
La una era el sol,
La otra la luna.
«Vecinitas», les dije,
«¿dónde está mi sepultura?»
«En mi cola», dijo el sol.
«En mi garganta», dijo la luna.
Y yo que estaba caminando
Con la tierra por la cintura
Vi dos águilas de nieve
Y una muchacha desnuda.
La una era la otra
Y la muchacha era ninguna.
«Aguilitas», les dije:
«¿dónde está mi sepultura?»
«En mi cola», dijo el sol.
«En mi garganta», dijo la luna.
Por las ramas del laurel
Vi dos palomas desnudas.
La una era la otra
Y las dos eran ninguna.*

Egitura tradiziozkoa du, bitarako irudiekin. Bi uso Eguzki eta Ilargiaren ikur, arrano bihurtzen diren bi uso, poetaren patua auresaten duten bi uso igarle, bat egiten diren bi uso, eta biak ezerez. Poetaren eta usoen arteko elkarrizketa, errepikapenak, erritmoa haurrentzako «doinua» dute. Abestiak bete egiten du poetak haurren ulermen poetikoan bilatzen duen goi lirikako betebeharrak.

Poema erdigunera zuzentzen da, «kirioen lautada airean» horretara, misteriora:

*«Por las ramas del laurel / vi dos palomas oscuras
«Vecinitas» les dije / ¿dónde está mi sepultura?»
(Canción)*

Agerrarazitako espazioa eszena irrealak da, amets



girokoa, poeta bere patuaz galdezka. Misterioan kokaturik, iragarpena are mehatxugarriago egiten da; poeman, poetaren «nia» Eguzki/Ilargi igarlearengana zuzentzen da, eta erremedio gabe kondenatzen dute «lurra gerri inguruan» izatera. Espazio horretan ez dago ibiltzerik, argiaren muga lausoan, eta ilunbearen arloan. Maitasun garaia han, erramuaren adarretan dela, urretxindor-poetak negar egiten du, ezerezean eroriko baitira ezinbestean, inor gabe, bata eta bestea, astro-usoak, ikusezinaren, eutsiezinaren, zeharrargiaren, biluziaren gardentasunaz.

«Por las ramas del laurel / vi dos palomas desnudas la una era la otra / y las dos eran ninguna».

(Canción)

Adar horietan maitasunak abesten baitu, eta usoek habiak egiten, adar ilunak, poesia garaia- ren adarrak, haurtzaroko hitz-alkimia ezkutua- ren inguruan biraka. Mundu hori batzuetan heldue- zina baita, urteek higatu eta urratua.

Hala ere, «fede errotuz» sinesten dugu, poeta- rekin batera, haurrak «guk baino hobeto ulertzen dituela lehengai poetikoaren giltzarri esanezinak».

Oharrak

(1) Pelegrín, A. (1996): *La flor de la maravilla. Juegos, retahílas, romances* Madrid. Fundación Germán Sánchez Rupérez.

(2) ETNIKER EUSKALERRIA (1983): *Atlas Etnográfico de Vasconia*. Bilbao 1983. Juegos infantiles en Vasconia.

(3) Miguel de Unamuno: *Recuerdos de niñez y de mocedad*.

1.

2. Antonio Colinas (1999). *El crujido de la luz*. León. Edilasa.

3. Bachelard, (1982). *Poética de la ensoñación*. México, FCE.

4. Howard Gardner, (2000), *Inteligencias múltiples*. Barcelona. Paidós.

5. Federico García Lorca (1995). *Antología Modelna*. Edición M. García Posada. Granada. La Veleta-Fundación García Lorca.


6. Morris, C.B. (19). *Una generación de poetas españoles (1920-1936)*. Madrid. Gredos. P. 109.

7. Lorca. «Voz del Pueblo en la muerte de la madre de Charlot». *El País*, 3-XII-1989.



Haur poesiaz gogoeta zenbait

JUAN KRUZ IGERABIDE



Zer ote du bereizgarri haur poesiak?

Galdera horren haritik, bi gogoeta bururatzen zaizkit: lehenik, haur poesiarren substantzia eta muina poesia bera dela; eta, bigarrenik, haurrei zuzendua egotea bigarren mailako zerbait dela. Alabaina, badu garrantzirik bigarren alde horrek. Gaurko honetan, haurren poesiatik abiatu, eta poesia hutserako bidea egingo dugu. Honekin esan nahi dut, haur poesia lehen pausotzat joko dudala poesiarekin topo egiteko, poesian murgiltzeko; izan ere, haur poesia bide urratze bat da.

Nire ustez, hori da haur poesiaren ezaugarri nabariena, bidea urratzea. Eta nola gauzatzen da lehen pauso hori? Bada, hitzarekin jolas eginez; hitzaren jolasa da poesiaren atea. Jolasarekin batera, beste ezaugarri batzuk ere agertuko dira: sentimenduen adieraztea, bizitzaren misterioa bilatzea, munduaren ikuspegi bat era berezian azaltzea, hizkuntzari adierazpen ezohikoak eta ezkutak ateraraztea, eta, hortik, objektu estetiko bat eraikitzea. Hitz gutxitan laburbiltzeko, haur poesia ibilbide bat da, hitzarekin jolas egitetik objektu estetiko eraiki eta goatzera daraman ibilbidea.

Jolasa debaldeko ekintza da, bizitzaren behar «garrantzitsuei» erantzuten ez diana; halaber, debaldekotasun hori da, hain zuzen, barne askatasuna sentitze-



ko modu indartsu bat. Hitzarekin jolas egiten hasten garenean, hizkuntza pertsonalizatu eta geure-geure egiten dugu, gizartearen arauen zamatik askatuz. Hitzek esanahi bat dute, gizarteak konbentzioz ezarria; hitzaren jolasak esanahi hori zabaltu (edo aldatu) egiten du, eta norbanakoaren zerbitzuan ipini zuzen-zuzenean.

Hitzek komunikazioa dute helburu, esanahi bat adieraztea. Hitzen jolasak «beste» komunikazio bat ezartzen du, esanahiei erraiak atera eta bide berrietatik abiaraziz.

«Beste» komunikazio horrek pertzepzio edo oharmen ezohikoak gertarazten ditu gure baitan. Oharmen berezi horiek dira inspirazioa. Beraz, esan genezake haur poesia ate bat dela, inspirazio poetikoaren sarrerako atea.

Mintza gaitezen, orain, inspirazioaz. Une honetan, hitzaldiari izenburua aldatuko nioke, eta beste hau ipini:

Inspirazioa zuzpertzeko: Musei deika

Inspirazioa eta poesia elkarren adiskide minak ote dira? Gaur egungo idazleak irribarre ironikoa egiten du gai hori aipatzean. «Inspirazioa baletor, mahaian lanean harrapa nazala», bihurtu da erantzun topiko posmodernoa. Musen kontu horretan ez du inork sinesten.

Alabaina, antzinate klasikoko poetek ez zuten hasten lanik, musei inspirazioa eskatu gaberik. Gero, kristautasunaren sarrerarekin, inspirazio emaila Ama Birjina izan zen (gogora, bestela, Berceo), edo Jainkoaren semea, edo Jainkoa bera, edo Espiritu Santua («Zatozkida goi-arnas, eizu nerekin lan», dio gure Orixek ere *Euskaldunak* poemaren hasieran).

Poeta laiko askorentzat amodioa izan da inspirazio iturri, maitasun idealizatua edo haragizkoa. Beste askok aberria, justizia, zapalduak edo horrelako ideia abstrakturen bat izan dute musa. Aro modernoan gaizkiaren loreak bihurtu dira inspirazio iturri: desesperantza, enajenazioa, alienazioa, drogak, ukoa (uko jainkoari, uko gizarteari, uko

justiziari, uko zibilizazioari...). Bistan denez, ume asko egin dituzte musek denboraren poderioz, era guztietako umeak, ederrak zein zatarrak. Freud-en ondoren inkontzientea deitu izan zaio musen lurraldeari, eta ariketak ere asmatu dira bertako atek zabaltzeko (Rodariren *Fantasiaren Gramatika* hortxe nonbait dabil).

Baina, zein ziren, bada, antzinate klasikoko Musa preziatu haiek? Nondik sortu ziren? Mitologia klasikoan, musak Mnemosinaren (Oroitza-penaren) alabak ziren. Mnemosine Zeusek bor txatu zuen, eta bederatzi ume egin zizkion, bederatzi musa. Mnemosine Uranoren eta Gearen alaba zen (Zeruarena eta Lurrarena), eta, beraz, Unibertsoko lehen jainkoen arreba; Metis eta Temis zituen ahizpa (Adimena eta Antolakuntza). Jainkosa sinboliko horiek guztiek eskaintzen diguten poesiaren oinarrizko sinbolizazioa, sus-traia.

Zeus eta Mnemosinaren arteko harremanetik jaiotako musak dantzariak eta kantariak ziren, bekoki urreztatua zuten, eta jainkoen eta gizakien arteko komunikazioa gauzatzen zuten, poetei bidaltzen zieten inspirazioaren bitartez. Hor badago, beraz, orakuluaren antzeko zerbait, poesia eta iragarlea elkartzen dituen zerbait.

Musen izenak hauexek ziren: Klio (aintza), Euterpe (gozamina), Talia (jaizalea), Melpomene (doinutsua), Terpsikore (dantzaria), Erato (atsegina), Polimnia (kanta ugarikoa), Urania (zerutiarra) eta Kalioppe (ahots ederrekua). Kalioppek poesia epikoa gidatzen zuen, Kliok historia, Eratok amodio lirika eta lirika korala, Euterpek txirularen musika, Melpomenek tragedia, Polimniak pantomima, Taliak komedia, Terpsikorek dantza eta Uraniak astronomia. Musena, beraz, hitzaren eta doinuaren erreinua da, baina doinu horiek izarrekin loturik daude, unibertsoaren antolamenduaren adierazgarri dira. Pitagoras gogorarazten dit horrek guztiak.

Musak Greziako Helikon mendian bizi ziren.

↪ Hizpide ↪



Han iturri bat zegoen, Pertseok sorrarazia, eta handik edaten zuten musek. Pertseo hori ere giltzarria da musen inspirazio ulertzeko.

Entzun dezagun Pertseoren istorioa:

Argoko errege Akrisiori orakuluak esan zion ezen bere alabak seme bat izaten bazuen, biloba hark hilko zuela Akrisio.

«Ez duk horrelakorik gertatuko», esan zion Akrisiok bere buruari. Hartu alaba Danae, eta lur azpian sartu zuen, brontzezko gela batean; gau eta egun zaindariak ipini zituen, inor sar ez zedin.

Han zebilen, ordea, Zeus, Danae politaz gustaturik. «Nola edo hala neureganatu behar diat poxpolin hori», zioen berekiko. Hortaz, urrezko euri bihurtzea erabaki zuen; gelaren zirrikitueta-tik sartu eta Danaeren magalera erori zen, eta handik barruragoko zirrikitu batera.

Danae gaixoak haur bat izan zuen. Ahal zuen moduan estali eta ezkututzen zuen, baina, halako batez, Akrisiok haurraren negarra entzun zuen. Ez zen ausartu ama-semeak hiltzera; kutxa batean sarrarazi, eta itsasora botatzeko agindu zuen.

Sefiros uharteraino iritsirik, arrantzale batek topatu zuen kutxa, eta ama-semeak bere etxean

jaso zituen. Mutiko hura, Pertseo, hantxe hazi zen. Arrantzalearen anaia uharteko erregea zen. Danae ikusi bezain laster maitemindu zen hartaz; berarekin ezkondu nahi zuen, kosta ahala kosta. Danaek ez zuen nahi, ezta Pertseo semeak ere. Erregeak, orduan, ezkontza galarazi nahi izanez gero, Medusaren burua ekarri behar ziola agindu zion Pertseo gazteari.

Pertseori Ateneak eta Hermesek lagundu zioten.

Hiru gorgona edo munstro ziren, eta, haietatik, bakarra hilkorra: Medusa. Hiru atso zahar zeuden zaindari; hortz bat eta begi bat besterik ez zeukaten hirurentzat. Atsoak konturatu gabarik, hortza eta begia lapurtu zizkien Pertseok.

–Hauek nahi badituzue, utzi niri aurrera igarotzen.

Utzi zioten, eta, aurrerago, Ninfak topatu zituen; haiek ondo portatu zitzaizkion: sandalia hegaldunak eman zizkieten, larruzko poltsa on bat, eta, ikusezin bihurtzeko, Hadesen buru-estalkia. Horiekin eta Hermesek emana zion igitaiarekin joan zen Medusa ikaragarriaren bila. Medusaren arma ikaragarria begirada zen: aurrez aurre begiratzen ziona harri bihurtzen zuen. Haren aurpegia beldurgarria zen, buruan sugezko ileak zituela.

Pertseo hegan iritsi zen Medusaren ondora, atzealdetik, eta burua moztu zion. Orro handi bat atera zuen Medusak, eta haren gorputzetik zaldi hegaldun bat eta urrezko ezpatadun gazte bat irten ziren. Pertseok medusaren burua larruzko poltsan gorde, eta hegan egin zuen ihesi; beste bi gorgonak saiatu ziren harrapatzen, baina ezin zuten ikusi.

Itzuleran zetorrela, neska eder bat ikusi zuen haitz bati loturik, herensuge batek jateko prestatu-rik. Andromeda zen, gurasoek Posidonen haserrea baretzeko eskainia. Badator itsas herensuge bat Andromeda harrapatzera, badoa Pertseo aurre egitera: Medusaren burua erakutsi, eta harri bihurturik utzi du Herensugea.



Pertseo Andromedarekin ezkondu zen, eta harekin itzuli zen Sefirosera. Hango erregea harriturik geratu zen Pertseoren itzulerarekin; eta haserre bizian zutitu zen, Danae galdu zuela ikusirik. Orduan, Pertseok Medusaren burua erakutsi zion:

—Bete diat hire agindua; begira.

Erregea eta berarekin zeudenak harri bihurturik utzi zituen. Gero, Hermesi armak itzuli, Medusaren burua Ateneari oparitu, eta Argosera itzuli zen amarekin eta emaztearekin. Akrisio aitonak jakin zuenean bazetozela, ihes egin zuen, orakulua gozoan.

Eman dezagun Medusaren burua halabehararren burua dela; begiratzen diona harri bihurtzen du, halabeharrak heriotza baitu berekin; Petseok atzetik harrapatzen du, ez dio zuzenean begiratzen, ispilu batez baizik.

Medusaren odoletik Pegaso zaldia jaiotzen da, eta harekin batera ihes egiten du Pertseok. Eman dezagun hegan egiteko aukera irudimenak ematen digula.

Pegasok Helikon mendian harri bat ostikoz jo, eta iturri bat jaiotzen da. Handik edango dute musek. Eman dezagun musen inspirazioaren iturria irudimenean dagoela

Italo Calvinok hala dio: Pertseok sandalia hegaldunak erabiltzen dituela, gauzarik arinena hartzen duela oinarri: haizea eta hodeiak; eta Pegaso zaldi hegaldunarekin ihes egiten duela. Hortik milurteko berrirako proposamen gisa arintasuna ipintzen du Calvinok, hegan egitea, pisurik gabeko literatura, Medusaren begiradak harri bihurtzen ez duen literatura. Pertseo bezalako muntro-menderatzailea izateko, fina eta zorrotza izan behar, nonbait.

Salbamena arintasunean dago, Italo Calvinoren ustez. Gizakion erresuma pisuaren pisuz harri bihurturik dagoen honetan, Pertseok bezala hegan egiten ikasi beharra dago, ez ametsera edo irrazionalitatara, ez da hori kontua, baizik eta

munduari beste begi batzuekin begiratzea, beste logika batekin, beste jakintza-metodo batekin. Poetak nahiz filosofoak jauzi egin behar du mundu zamatsu honetatik, arin bihurtu, garai hauetako hotsak, lastertasunak eta bizkortasunak ez baitaude bizitasunez beterik, herioz baizik.

Hitzaren jolasak arindu egiten du bizitzaren zama; horren irudi dira sorginen erratz hegalaria, alfonbra magikoak, Printze Txikiaren arintasuna eta haren adiskide pilotuaren hegan egiteko grina...


Musak Mnemosinaren alabak izanik, oroitzapenen esnea edan dute, eta Pegasok jaioarazitako irudimen hegaldunaren iturrian asetzen dute egarria.

Hori guztia ikusita, ez dakit, bada, zergatik idazleek irribarre okerra egiten duten musen eta inspirazioaren kontua aipatzean.

Euskaraz inspirazioari etorria ere deitu izan zaio. Ikuspegi horretatik, inspirazioa pasiboa da, jario bat. Eginahalaren bidez datorrenean, ekarria esaten zaio, zerbait aktiboa. Etorri handia izateko, ekarri handia egin behar da alde zurretik, modu batera edo bestera. Bi prozesu horiek honela definitzen ditu Italo Calvinok: irudimen prozesuak bi dira nagusiki; lehendabizikoan, barne irudi bat hitzetan ipintzen du poetak; bigarrenean, hitzetatik abiatuz, barne irudi bat eraikitzen du. Etorria eta ekarria, hain zuzen ere. Prozesu horretatik sorturiko irudimenak bi eginkizun nagusi ditu: batzuen ustez, irudimenak munduaren arima topatu behar du (erromantizismoak bide hori jarraitu du, eta surrealismoarena, beste modu batera bada ere, bide bera da); beste batzuen ustez, ordea, irudimena ezagutzaren edo jakintzaren baliabide bat da (jarrera klasikoagoak eta materialistagoak agertu dira bide horretatik).

Calvinok arrisku handi batez ohartarazi nahi gaitu: barne irudi horiek eraikitzeke ahalmena galtzeko zorian omen daukagu, izan ere, gure irudimena, irudi estereotipatuaren bonbardaketa

↪ Hizpide ↪



etengabearen azpian, irudi-zati baliogabeen zabortegi bilakatzen ari da; gero eta zailagoa da barne irudi sendoak eraikitzea. Gaur egun, irudimena-
ren pedagogiak egin dezakeen lanik goraipagarriena hauxe da: begiak itxita, barne irudiak eraikitzeko ahalmena ez galtzea; ager daitezela koloreak, agertu irudi beltz garbiak hondo zuri baten gainean; barne irudi horiek ondo mugaturik ager daitezela. Gero, bigarren pauso bat da irudi horiek hitzen bidez adieraztea. Eta hirugarren bat, entzundako hitzen barne irudi bat egitea.

Baina ikuspegi tekniko samar hori baino harago joanez, Robert Gravesek inspirazioa zer ote den galdetzen du. Hasteko, inspirazioa oharmenaren egoera ezohikoa omen da; inspirazioak sudurretik arnasa hartzea esan nahi du; sudurretik arnasa soilik ez, baizik eta zenbait substantziaren lurrinak hartuta, oharmena zabaldu egiten da, konortea galdu gabe. Eta, areago: ez dago inolako substantziarik arnastu beharrik: zenbaitek aski du arnasa denbora luzez bizkortzea oharmen aldaketak nabaritzeko. Beraz, lehen maila batean, inspirazioak arnasarekin du zerikusia.

Inspirazioak, halaber, badu beste biderik: be-

larria; zenbait musika eta soinu aditzeak barruko egoera aldatzen digu, egoera psikologiko berezi batera eramaten gaitu. Basoan haizearen hotsa entzuteak, itsasoaren doinuak, ibaiarenak... inspirazio-iturri dira. Eta beste zentzumenetatik ere sar daiteke inspirazioa: ukimenetik, dastametik, ikusmenetik.

Horretaz gain, Gravesek ere musak ezartzen ditu inspirazio-iturri: musa, nolabait esateko, inspirazio iturri emea da, sentsibilitate emea, eta poesiaren zedarria emetasunaren eta artasunaren arteko harremana da. Poesia, nonbait, amatasuna nagusi zen garaikoa da, Gravesen iritzian, eta Ilargitik datorkio magia, ez Eguzkitik. Egia, azken batean, emakume biluzi baten irudiaren bidez sinbolizatu dute poetek. Jainkosa Zuria deitzen dio Gravesek egari..

Horiek horrela, erlijioan esan ohi den «Jainkoaren graziaren» antzekoa da inspirazioa, Gravesen ustez, erritoekin eta jarrera erlijiosoen zerikusi zuzena du. Alabaina, Calvinoren eskutik, badago aukerarik inspirazioa suspertzeko, egin daiteke inspirazioaren pedagogia bat, nolabait esateko, abiapuntu gisa bederen. Haur poesiak hitzaren jolasaren bidez zabaltzen du inspirazioaren bidea. Hala ere, hitz jolasa norberaren barne munduarekin lotzen ez bada, jolas mekaniko bihurtzeko arriskua du. Hitzaren jolasa poesiaren sarrerako atea da, baina barruan gero eta barnerago joateko aukera hortxe dago, jolas horrekin batera beste pauso batzuk egiten ikasiz gero. Horrela, bada, hitzaren jolasetik inspirazioa erakarrri eta bizikizun estetikoan barna abiatzeko bide batzuk aipatu nahi ditut. Horretarako, zenbait genero poetiko aurkeztuko ditut, ea ekarriaren bidez etorriaren ur-xirripa iturri bihurtzen zai-
gun.

Poema mota bitxi batzuk inspirazio iturri¹

↪ Hizpide ↪

1) Inspirazio lirikoa: Haiku japoniarra

Lirikaren perlarik txikiena da haikua. Octavio Paz-ek dioenez, «Pilula txiki bat da, poesiaz bete-betea, eta errealitatea mila zati egiteko indarra du». Tradizio japoniarretik datorkigun poema mota tradizionala da, eta

zen budismoaren ikuspegiarekin zerikusi zuzena du.

Haikuak amaitu gabeko poema bat ematen du. Gainera, haiku batean hitzak oso mugatze gutxi izaten du; hitz gutxi batzuk, bakar-hutsean, zerbait mugagabea adierazi nahian.

«Udaberrian
muino izen gabea
laino artean» (Basho).

Garai batean, ahozko tradizioko ahapaldi sail baten zati zen haikai edo haikua, gerora bakarturik geratua. Hamazazpi silaba izaten ditu eskuarki, hiru lerrotan banaturik (5 / 7 / 5). Ez du izaten errimarik. Hitz-jokoz osaturik egon daiteke, baina hitz-jokoa, azken batean beste indar batek eramaten du, tximista batek joko balu bezala, ia heldulekurik gabe utziz. Poemaren barruan gogoeta baldin badago, oso da xumea, ia iradokizun hutsa.

Lau ikuspegi bereizi ohi dira haikuetan:

-Munduari eta izadiari era objektiboan begiratzea:

«Adar iharra,
belea, udazkena,
ilunabarra» (Basho).

-Kosmosaren aurrean harridura, bihotz-jauzia:

«Hain ederra da
zirrikituetatik
Esne Bidea!» (Basho)

«Ilargi urrun:
zure argia lore-

-lapurrari ere» (Basho)

-Gizakiaren aipamena (askotan melankoliaz bete)

«Lore azpian

jan dugu janaria
gizaki hutsok» (Basho).

-Animalia edo landareen aipamena:

«Adar iharra,
belea, udazkena,
ilunabarra» (Basho).

Haiku batean bi zati bereizi ohi dira, eta bi zati horien arteko talka moduko batean oinarritzen da haikuaren eragin poetikoa.

-Lehen zatia deskripzio bat izan ohi da. Egoera bat adierazten du, denbora eta lekua (udazkena, negua, eguerdia, zuhaitz bat, lorea...), eskuarki urtaro bati lotua.

-Bigarren zatia ezusteko osagai bat darama. Bi zati horien baturak halako eztanda poetiko bat sortzen du.

«Aurpegi horri...
zerbait ikusten diot:
sugegorria» (Issa).

Euskal tradizioko koplak zaharrek ere antzeko teknika bat erabiltzen dute. Hala ere, esanahia-
ren eraketa oso bestelakoa da. Euskal koplak zahar-
rean, lehen bi lerroek egoera bat, denbora bat,
girotze bat adierazten dute; bi lerro horiek elkar-
rren artean errimaturik daude, eta 8A / 8A neu-



⇨ Hizpide ⇨



rria dute eskuarki. Gero beste bi lerro datoz (10 / 8A), azkenekoa errimaduna; azken bi lerroek mezu bat daramate, bertsolari estilokoa, agur bat, gogoeta bat. Lehenengo zatiak mezuari giro bat ipintzen dio, nolabait barne-jarrera bat sortu nahirik edo, eta gero dator mezua, ildo bertsutik, analogiaz, eta ez lotura logikoz. Alabaina, ez dauka haikuaren esanahi-talka hori, halako harridura-jarrera edo ikuspegi mistiko baten antzekorik.

«Haltzak ez du bihotzik
ez gaztanberak hezurrik;
enian uste erraiten ziela
aitonen semek gezurrik.»

Hor, lehendabiziko zatian barne-jarrera bat adierazten da (bihotzik eza, egur ustela, tinkotasunik gabeko mamia). Gero, mezua bideratzen da, hasierako inpresioari azalpen zehatz bat emanez. Askozaz jarrera pragmatikoagoa da koplazaharrarena, poesia herrikoia pragmatikotasunaren harikoa hain zuzen.

«Hau haizearen epela
airean dabil orbela.
Etxe hontako jende noblia
gabon jainkoak diela.»

Giro epela, gozoa, adeitsua, gero agur adeitsu bat botatzeko.

Haikuaren bidea besterik da, adierazi dugunez. Baliabide gisa aliterazioa eta onomatopeia sarri erabili ohi ditu haikuak:

«Urmahel zahar:
Igelak txas! jauzia;
txapla-txaplaka» (BASHO).

Hotsak ere maiz irudi poetikoen bidez adierazten ditu; zuzenean hotsa adierazi gabe, irudiarren bidez, hotsa imajinatzeraz garamatza.

«Euri-lanbroa:
lastoa xuxurlaka
aterkiagaz» (RYOTO).

Esanahi desberdina duten bi hitz elkartzen ditu, askotan semantikaz elkarrengandik oso urrunduak, horrela, aipatu tximista hori, ezusteko hori eragiteko.

«Udan ilargi:
kirtena ipiniz gero,
abaniko bat» (SOKAN).

2) Umore-inspirazioa: Limerick

Haikuaren inspirazioa goranzkoa edo bertikala den bezala, limerick-arena horizontala da; uraren antzera, bazterrik ezkutuenetara zabaltzen da; halaxe, limerick-aren *non sense* jokabidea gure irudimenaren alderik ezkutuenetara iristen da, eta barrua alaitzen digu. Izan ere, gure alderik ezkutuenak izango dira, inondik ere, gure alderik barregarrienak.

Limerick-a ahapaldi mota bat da, eta Irlandan dagoen Limerick herriaren izena du. Edward Lear-ek zabaldu zuen mundu osoan.

Non sense teknikak erabiliz poema irigarri bezain harrigarriak egin zituen. Orokorki, limerick baten teknika honako hau da:

- Lehen lerroan pertsonaia bat aurkezten da (arraro samarra eskuarki)
- Bigarren lerroan pertsonaia hori nolakoa den adierazten da.

↪ Hizpide ↪

• Hirugarren eta laugarrenean zerbait egiten du edo gertatzen zaio. Normalean bi lerro horiek beste hirurek baino neurri laburragoa izan ohi dute, baina ez beti.

• Gertatutakoaren eraginez, azken bertsoan pertsonaia hori are bitxiagoa gertatzen da (askotan, lehen bertsoaren amaieran eta azken bertsoaren amaieran pertsonaiaren izena ipintzen da).

- Behin omen zen Kontxesi
- Sudurrean zeraman orrazi
- Orrazten zuen ezpaina
- Orrazten zuen bekaina
- Apaina zen gure Kontxesi.

Bertsoen neurria aldakorra da; errima, berriz, gehienetan AABBA izaten da. Hala ere, ezaugarri horiek guztiak ez dira arau estuak; limerick-ak beste eraketa bat ere izan dezake. Euskal tradizioan bada limerick-aren antz handia duen pieza bat:

«Behin omen zen Juan zahar bat
Egin omen zuen puzker handi bat
Joan omen zen baratzer
Jan omen zuen aza
Egin omen zuen kaka berde-berdea.
Hura zeinentzat?»

(aurrena mugitzen denarentzat, aurrena hitz egiten duenarentzat...)

Pieza horrek pertsonaia bitxi bat aurkezten du, ekintza barregarri edo harrigarriren bat egiten du pertsonaiak, eta ezaugarri are bitxiagoa hartzen du, arraroago edo barregarriago bihurturik (kaka berdea egitea).

Egin dezagun proba bat. Limerick-ak jolaserako aukera handiak eskaintzen ditu, eta bidea ematen du poema mota bat lantzeko, *non sense* erakoa, umorezkoa, batzuetan bizitzak ere zentzurik gabea dirudi eta.

- Horra Esteban Goierriko
- Estu-estu darabil gerriko
- Estutu du hainbeste
- Egin du sabelaz beste
- Horra, Esteban kokoriko.

Txinatar poema²

Poeta japoniar bati (ez da argitzen nor zen) txinatar poema bat nola egiten zen galdetu zioten, eta honako formula hau eman zuen:

- Lau bertso-erro ditu.
- Lehen bertsoan hasierako motiboa dago.
- Bigarrean, motiboaren jarraipen bat eskaintzen da.
- Hirugarrenean motibo berri bat sartzen da, kontrastez.
- Laugarrenean aurreko hirurak laburbiltzen dira.

Hona adibide bat:

«Kyotoko zeta-merkatari batek bi alaba ditu zaharrena hogei urtekoa, gazteena hamazortzikoa;

gerlari batek ezpataz hil dezake edonor baina bi neskatila horiek begiez hiltzen dute».

Saia gaitezen antzeko bat asmatzen, umore ukitu batekin:

«Bilboko dendari batek bi alaba ditu zaharrena handi-handia, gazteena txiki-txikia; mendi gaintetik itsas gaina ikus liteke, bi neska horiek ikusten dute gaina eta azpia».

Orain beste bat, oso bestelakoa:

«Eskolan sartu da txori bat hegan dabil, ez daki nondik irten; haur batzuek ere eskolan sarturik nola irten ez dakiten txoriak dirudite».

ERANSKINA

1) HAIKUA LANTZEN (ordezkapen ariketa soil batetik bizikizunak adieraztera)


Eredua:

Haize fin-fin batek
miazkatu dit aurpegia:
banillazko izozkia.

Emaitzak (paralelismoz, ondorio psikologiko bat atereaz):



↪ Hizpide ↪



Euri zorrotz-zorrotz bat
sartu zait begitik:
negarrez ari naiz.

(izenik gabe, Leioa, Artatza ikastetxea)

Hodei bigun-bigun batek
ukitu dit belarria:
aingeruen kanta.

(izenik gabe, Leioa, Artatza ikastetxea)

Hodei bigun-bigun batek
ukitu dit hanka.
Zeruan nago.

(Goiuri, Leioa, Artatza ikastetxea)

Eredua:

Botoi etena:
neskatxaren bularra
txoriz betea.

Emaitza (forma erabat paraleloa, baina senti-
pena erabat kontrakoa):

Kaiola txikia:
txoriaren bihotza
iltzez betea.

(Iratxe, 14 urte, Lizarrako ikastola)

Urtaroekin³

Udan bero handia egiten du
eta muinoari izena urtzen
zaio eguzki azpian.

*(Unai, Iban, 8 eta 6 urte, Zizurkil, San Millan
herri eskola)*

Neguan txoriak
jana bilatu ezinik
elur azpian.

*(Maider, Leire Igone, 7 eta 8 urte, Zizurkil, San
Millan herri eskola)*

Udaberrian
neskatxa pinpirinak
zuhaitzetik zintzilik.

*(Leire, Maialen, 8 urte, Zizurkil, San Millan
herri eskola)*

Eredu askotarikoak:

Ilargia mendian ezkutaturik:
tantak eta zotinak
erortzen dira han goitik.

*(Alejandro, 10 urte, Burlata, Ermitaberri ikas-
tetxea)*

Ez dut gorrotatzen
gorrotatzen dudan jendea
nire urtebetetzean.

(Mikel, 9 urte, Burlata, Ermitaberri ikastetxea)

Euria, gelditu!
Aitak esan zidan:
«Hori esaten baduzu
ez da geldituko».

Trumoa hasi zen.

(Jokin, haur eskola, Alkiza)

Eredu bat,
barne-egoeraren arabera⁴:

↪ Hizpide ↪

Haurra barreka:
haren ahotik
tximeletak.

Emaitzak:
Haurra lo:
haren ahotik
aingeruak.

Haurra triste:
haren ahotik
tximinoa.

Haurra pozik:
haren ahotik
koloretako arraintxoak.

Haurra asperturik:
haren ahotik
euliak.


LIMERICK-A LANTZEN (ordezkapen ariketatik umorea eta harridura askatzer)

Bazen Asteasun mutu bat
ba omen zuen aparatu bat;
jarri zuen ahoan
egin zuen berebiziko oihu bat.
(Ainhoa, Zizurkil, San Millan herri eskola)

Behin omen zen zombi bat
sudur puntan zeraman argi bat
egin zuen argi hilobian
piztu zuen hildako bat..
(Ainhoa, Maitane, Irati; Zizurkil, San Millan herri eskola)

Behin omen zen Ikerne
beti zegoen erne;
errepidea pasatzen
ez zitzaion ezer gertatzen;
itsua zen gure Ikerne.
(Txurdinaga ikastetxea, 6. maila)

Behin omen zen Juan Zahar bat
egin omen zuen puzker handi bat
joan omen zen dentistarengana
jan omen zuen hortz bat
eta egin omen zuen kaka zorrotz-zorrotza.
(Olatz, Ainhoa 8 eta 9 urte, Asteasu, Pello Errota herri eskola)



Oharrak

1. Alde praktiko hau, Maria Angeles Etxebarriaren ikerketa batean agertzen da. Biok elkarrekin bideraturiko saio praktikoetan eta haietatik ateratako ondorioetan oinarriturik dago. Bide batez, esker mila parte hartu duten ikaste-teeetako irakasle adiskideei eta haurrei, hemen denak aipatzerik ez eta batzuk besterik ez ditut ipini baina.
2. Nyogen Senzaki eta Paul Reys-ek eginiko *zen* ipuinen antologian agertzen da teknika hori; *Carne Zen Huesos Zen, 101 historias Zen*, Ed. Troquel, Buenos Aires, 1994.
3. Haikuen tradizioan ohikoa da urtaroaren zantzuren bat agertzea poeman, gehienetan izadiaren une bati loturik agertu ohi baita.
4. Barne egoera nola, hala aldatzen da hitz bat edo zati bat, poemaren tonua ere aldatuz.